



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 23a

4 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Iruztun-Altsasu autobia – Sakanako autobiar buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Irurtzun-Altsasu autobia – Sakanako autobiar buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Irurtzun-Altsasu autobia – Sakanako autobiar buruzko fiskalizazio txostena argitaratu dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Irurtzun-Altsasu autobia – Sakanako autobiar buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Aintzinsolasa (2. or.).
- II. Aurrekariak eta administrazio espedientearen kronologia (3. or.).
 - II.1. Jarduketa orokorrak (3. or.).
 - II.2. Proiektuak (4. or.).
 - II.3. Obrak (4. or.).
 - II.4. Laguntza teknikoa (5. or.).
 - II.5. Burutzen ari diren tartearak (V, VI eta VII) (6. or.).
- III. Aplikatzekoa den araubide juridikoa (6. or.).
- IV. Helburua, nondik norakoak eta mugak (6. or.).
- V. Ondorioak eta gomendioak (7. or.).
- VI. Kostuen laburpen orokorra. (10. or.).
- VII. Proiektuak (11. or.).
- VIII. Obra (12. or.).
- IX. Obra osagarria eta ukituriko zerbitzuak birrezartzea (16. or.).
- X. Laguntza teknikoa (17. or.).
- XI. Desjabetzapenak (19. or.).
- XII. Segurtasuna (19. or.).

Eraskinak (21. or.).

1. Eraskina. Herrilan Departamentuak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (21. or.).
2. Eraskina. Herrilan Departamentuak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbarak emaniko erantzuna (24. or.).

I. AITZINSOLASA.

Sakanako autobiak, beste bide batzuekin batera (Iruñetik Irurtzuna doan A-15 autopistarekin batera, kasu), Iruñea-Gasteiz edukiera handiko loturaren itxiera osatzen du.

Obra hori azpiegiturako inbertsioei buruzko plan orokorrean dago sarturik (1/89 Legea), Iparraldeko Autobiarekin eta Iruñeko ingurubide eta saihebidetarekin batera, 1989-1991 hiru urtean bide sarean egin behar diren inbertsioez gain.

Autobian, 25,9 kilometro luze den horretan, bi fase daude, bina tarte dauzkatenak, eta bestelako jarduketan bidez, Arabako mugaraino doa.

A fasea

Autobia Etxarrendik abiatzen da. Haren trazadura, lehenengo 12 kilometroetan, gaurko errepi-deari darraio, destolestatzen delarik eta Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri, Ihabar, Murginduetza, Irañeta, Uharte-Arakil, Arruazu eta eta Lakuntza herrietatik barna diragararik. Bi tartetan banatzen da.

- I. Tarte. Etxarren-Irañeta.

Irurtzun-Etxarren Tarteari Ekain lotzen zaio eta Uharte Arakilen bukatzen da, Irañetako goi pasabidetik 800 metrora, non hurrengo tarteari lotzen baitzaio.

Hiru lotuneraren (Satrustegi-Zuhatzu-Hiriberri; Ihabar eta Irañeta) eta bi pasabideren eraikuntza biltzen du.

- II. tartea. Irañeta-Lakuntza.

N-240 gaurko errepidea ere destolestatzen du, eta Irañetako loturatik Arakil ibaira doa, Lakuntzan. Hor hurrengo tarteari lotzen zaio. Hiru lotune aurreikusten ziren: bi Uharte Arakilen eta bat Arruazun.

B fasea

Ondoren, autobia, orokorrean, bereiztu egiten da gaurko errepidetik eta Arbizu, Etxarri-Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Altsasutik barna pasa eta gero, I errepide nazionalari lotzen zaio. Horren destolesketa aurreikusirik dago. Hura ere bi tartetan banatzen da.

- III. tartea. Lakuntza-Etxarri Aranatz

Gaurko errepidetik kanpotik. Arakil errekatik abiatzen da, non Irañeta-Lakuntza destolesketari lotzean baitzaio, hegoalderantz gaurko errepidetik bereiztu eta gero, azkenean Etxarri-Aranatzen ondoren hari lotzeko.

- IV. tartea. Etxarri Aranatz-Altsasu

Etxarri Aranatzetik abiatzen da, gaurko errepidea Iturmendiraino destolestean duelarik. Ondoren, iparralderantz, hartatik bereizten da. Urdiaindik pasa eta gero, Altsasun bukatzen da, non errepide nazionalari lotzen zaion. Horren destolesketa aurreikusirik dago.

Hor, Altsasun, Sakanako autobidea deritzona bukatzen da. Hala ere, puntu horretatik goiti, beste jarduketa batzuen bidez Arabako mugaraino ailegatzen da, Iruñea-Gasteiz edukiera handiko loturaren itxiera osatzeko.

Jarduketa osagarri horiek hauexek dira:

a) Altsasuko lotunea, Altsasu I errepide nazionalarekin lotzen duena. Haren obra 1995eko irailan esleitu zen.

b) Altsasutik Arabako mugara. Olaztiko saihebidia Arabakao mugaraino destolestean da. Proiektu hori 1996an onetsi zen behin betikoz.

c) Etxegarate mendatearen destolesketa. Proiektu hori prestatzen ari da.

II. AURREKARIAK.

II.1. JARDUKETA OROKORRAK.

1) 1989ko otsailaren 28ko 1/89 Foru Legeak "Inbertsio eta Azpiegituretarako Plan Orokorra" onetsi zuen, non Irurtzun-Altsasu destolesketa bildu baitzen.

2) 1989ko maiatzean Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordearekin alde aurreko kontsulten biderapenei ekin zitzaizen.

3) Nafarroako Gobernuak 1989ko abuztuaren 3an harturiko erabakiaren bidez, Irurtzun-Altsasu autobia udalez gairik eragineko proiektu sektorialtzat jo zen. Proiektu hori behin-behinean onartu zen eta hilabetez jende aurrean egon zen. Epe berean, Irurtzun-Altsasu autobien ingurugiro eraginaren azterketa ere egon zen jende aurrean.

4) Hurrengo egunean, abuztuaren 4ko 860/89 Foru Aginduaren bidez, proiektuak bere lau tarteretan ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda jarri zen jende aurrean.

5) Nafarroako Gobernuak 1990eko apirilaren 20an harturiko erabakiaren bidez, hilabete epean, autobien udalez gairik eragineko proiektu sektorialaren aldaketa batzuk jarri ziren jende aurrean, Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak 1990eko apirilaren 11n aldeko txostena eman eta gero.

Aldaketa horiek Herrilan Departamentuan bideraturiko espediente batetik sortu ziren, autobien eraikuntzak ukituriko toki entitateek eginiko eskarien ondorioz. Aldaketa asko autobia berez ukitzen ez duten ekintzak dira, baizik eta bideen birrezarpena, zubien eraikuntza, etab. Alegia, bigarren mailako edo aukerako sarea hobetzeko obra osagarriak, tokian tokiko eskariak behar bezala konpontzearen.

Aldaketa horiek obra osagarrien proiektuaren prestakuntzarako agindu tekniko partikularren orrietan aipatzen dira, I. eta II. tarteetan eta III. eta IV. tarteetan.

6) Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak 1990eko uztailaren 4an harturiko erabakiaren bidez, aukerakoak hautatu ziren eta neurri zuzentzaileak eta eginbehar tekniko eta informatiboak ezarri, ingurugiro eraginaren aitortpen aldekoa eman zelarik.

7) Nafarroako Gobernuak 1990eko uztailaren 31n harturiko erabakiaren bidez, jende aurrean jartzeko epean aurkezturiko alegazioak ebatzi ziren, autobia Udalez Gairik Eragineko Proiektu Sektorialtzat jo zuen 1989ko abuztuaren 3ko erabakiak agindu baitzuen epe hori (3. puntua), eta Irurtzun-Autobia autobia udalez gairik eragineko proiektu sektorial gisa onartu, Hirigintza eta Ingurugiro Batzordearen aitortpenean sarturiko berezitasun eta neurri zuzentzaile guztiak bete behar zirelarik (6. puntua).

Proiektua behin betikoz onartutzat eta erabilgarritasun eta interes publikotzat jo zuen eta des-

jabetu beharreko ondasunak hartzea premiazko-tzat jo zuen.

Hirigintza eta Ingurugiro Batzordean aginduak kontratu-agiri gisa lau tarteetako obrako baldintza administratibo eta partikularren pleguan agertzen dira.

8) 1990eko urriaren 1eko Foru Aginduaren bidez, 860/89 Foru Aginduaren bidez agindurik jende aurrean egoteko epean aurkezturiko alegazioak ebatzi ziren (4. puntua), ukituriko ondasun eta eskubideen titularrei dei egin zitzaielarik.

II.2. PROIEKTUAK.

1) Nafarroako Gobernuak 1988ko urriaren 27an harturiko erabakiaren bidez, Herrilan Kontseilariari baimena eman zitzaion I., II., III. eta IV. tarteetako proiektuen prestakuntzarako laguntza teknikoa kontratatzeko, zenbateko bakarrean, 9.975 milioi pezetatan.

2) 1988ko abuztuaren 22ko 1.203, 1.204, 1.205 eta 1.206 Foru Aginduen bidez, Kontseilariak horretarako buruturiko lau espediente onetsi zituen eta agindu zuen lanak zuzenean esleitzeko behar ziren jarduketek ekin zekiela, gutxienez ere hiru enpresa kontsultaturik.

3) Hautatzeko prozeduraren ondoren, 1988ko azaroaren 17ko 1237, 1238, 1239 eta 1240 Foru Aginduen bidez, kontratazio organoak prestakuntza lanak esleitu zituen:

I. tarte	José R. Ranz	9,42 milioi pezeta
II. tarte	Iberinsa	9,97 milioi pezeta
III. tarte	Cima Ingenieros	9,29 milioi pezeta
IV. tarte	Cima Ingenieros	9,29 milioi pezeta

4) Lau kontratuak 1,3 milioi pezetatan gehitu ziren. I. tarte 1989ko abuztuaren 28ko 824/89 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, Arakil-Hiriberri eta Ihabar saihebidetarako prestakuntza esleitu zelarik. Gainerako hiru tarteetarako, 1989ko urriaren 18ko 1088, 1089 eta 1090 Foru Aginduen bidez, ingurugiro eraginaren neurri zuzentzaileak zabaltzea esleitu zitzaizen prestatzaileei, proiektua 1131/88 Errege Dekretura egokitzeko.

5) Proiektuak 1989ko irail-urrietan hartu ziren behin-behinean. Kasuan kasuko obra kontratuak prestatzen zituzten jarduketekin batera onartu ziren.

6) III. eta IV. tarteetako proiektuak berriztatu ziren, udalez gaidiko eragineko proiektu sektoriale behin betikoz onesteko 1990eko uztailaren 31ko Erabakiaren ondoriozko aldaketa eta obra osagarriak sartzeko. Proiektu berriztatu horiek

848/42 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren behin betikoz.

Obra osagarriei dagokienez:

7) Apirilaren 23ko 374/90 eta 375/90 Foru Aginduen bidez, horretarako buruturiko bi espedienteak onartu ziren eta zuzenean esleitzeko behar ziren jarduketak agindu ziren, zenbait enpresa kontsultaturik, I., II., III. eta IV. tarteetako obra osagarrien proiektuetarako.

8) I. eta II. tarteetarako obra osagarrien proiektuen prestakuntza, ekainaren 5eko 604/90 Foru Aginduaren bidez, Cintec-i esleitu zitzaion, 9,5 milioi pezetatan eta 1990eko abenduaren 17an hartu zen behin-behinean.

9) III. eta IV. tarteetarako obra osagarrien proiektuaren prestakuntza eman gabe gelditu zen, ez baitzen eskaintzarik aurkeztu. Jarduketek ekin zitzaizen, baldintza administratibo eta partikularren plegua aldaturik eta salneurria 9,5 milioitik 14,03 milioira garestiturik. Urriaren 8ko 1137/90 Foru Aginduaren bidez, espedientea onetsi zen eta lehiaketarako dei egin zen. Hori abenduaren 14ko 1438/90 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen, prestakuntza Inarsari esleitu zitzaielarik, 13,56 milioitan. Kontratua aldatu egin zen, obra unitateak urriagotu baitziren. Horrek 1,27 milioi pezeta gutxitzea ekarri zuen.

Kontratu horren azkeneko ziurtagiria 1991ko abenduaren 11koa da. Obraren likidazio akta 1994ko otsailaren 25ekoa da. Badaude desadostasunak enpresaren eta administrazioaren artean, eginiko lanari buruz, suntsiarazteko espedienterik mahaingaineratu ez zelarik.

II.3. OBRAK.

1) Urriaren 25eko 1209/1990 eta 1210/1990 Foru Aginduen bidez, "espedientea onartu egin zen eta I. eta II. tarteak esleitzeko lehiaketari ekitea agindu zen", Nafarroako Gobernuak aurretik baimendurik.

2) Abenduaren 31ko 1554/90 eta 1555/90 Foru Aginduen bidez, I. tarte Irurtzun enpresen aldi baterako bategiteari (Navasfalt, Elkartea, Olloquiegu, Asfaltos de Biurrun eta Trabit enpresek osatzen dutenari), 1.578,9 milioi pezetatan. Burutzeko epea 19 hilabetekoa izanen zen. Dragados y Construcciones-i II. tarte esleitu zitzaion, 1.795,5 milioitan, 20 hilabetetan burutzeko.

3) Irailaren 18ko 963/91 Foru Aginduaren bidez, espedientea onartu egin zen eta I. eta II. tarteetako obra osagarriak esleitzeko lehiaketari ekin zitzaion. Abenduaren 13ko 1354/91 Foru

Aginduaren bidez, Construcciones Mariezcurrenari esleitu zitzaizkion, 391,1 milioitan.

4) Nafarroako Gobernuak irailaren 28an baimena emanda, azaroaren 20ko 1.191/92 eta 1.192/92 Foru Aginduen bidez, Herrilan Kontseilariak jarduketa prestatzaileak onartu zituen eta xedatu zuen III. eta IV. tarteetako obrak esleitzeko lehiaketari ekin zekion. Otsailaren 22ko 97/93 eta 98/93 Foru Aginduen bidez esleitu ziren: III. tarte Arbizu enpresen aldi baterako bategiteari (Cubiertas Mzov, Urbanizaciones Iruña, Construcciones Azpíroz y Saralegui, Obras Especiales de Navarra eta Excavaciones Luciano Elkarte enpresek osatzen dutenari), 2.446,3 milioitan, 22 hilabetetan burutzekoa, eta IV. tarte Agromán-i, 1.953,2 milioitan, 20 hilabetetan burutzekoa.

5) Kontratu aldaketak. Asko dira, tarte guztietan.

I. tarteaz zazpi aldaketa espediente daude, haien zenbateko gordina 177,88 milioikoa delarik. Gainera, obrak, aldi baterako eta hein batean, eten egin ziren.

II. tarteaz, lau aldaketa espediente onartu dira, haien zenbateko gordina 323,5 milioikoa delarik. Gainera, badago beste aldaketa bat onarturik ez dagoena -34,3 milioikoa-. Hori, behin-behineko likidazioak frogatzen duenez, egin egin zen.

III. tarteaz, kontratazio organoak lau aldaketa baimendu zituen -576 milioitan-. Gainera, obraren zuzendaritzak beste hiru aldaketa proposatu zituen, administrazioak onartuak, 1,2 milioi gutxitzea ekarri zutenak.

IV. tarteaz, hiru aldaketa daude, 488,7 milioi egiten dutenak, eta obra esleipen bat, argindar lerroetan, 17,3 milioi egiten duena.

I. eta II. tarteetako obra osagarrietan, bi kontratu-aldaketa onartu ziren, 71,98 milioi egiten dutenak, eta Garraio Zuzendaritzari bereizturiko espediente bat, markesinak eraikitzeak, 18,2 milioi egiten duena.

Gaineratu behar da, azkenik, berez aldaketa ez bada ere, esleipenaren salneurriaren ehuneko 10eko hornidura berezia onartu zela, orrietan, hurrenez hurren, 157,9 milioi, 244,6 milioi, 190,4 milioitan ezarririkoa, Kontratuari buruzko Foru Legeko 21.3 artikuluan aurreikusi bezala.

6) Obrak hartzea.

I. tarteaz 1993ko ekainaren 25ean hartu zen behin-behinean, obra nagusiari dagokionez, eta 1994ko urriaren 25ean 50/93 eta 91/93 Foru Aginduen bidez onetsiriko bi kontratu gehikuntzei dagokienez. Behin betiko hartzeak 1994ko urria-

ren 25ean eta 1995eko urriaren 25ean egin ziren, hurrenez-hurren.

II. tarteaz 1993ko ekainaren 25ea hartu zen behin-behinean eta 1995eko urtarrilaren 13ean behin betikoz, akatsak zuzendurik.

I. eta II. tarteetako obra osagarriak 1993ko martxoaren 26an hartu ziren behin-behinean eta 1994ko martxoaren 26an behin betikoz. Markesinak, espedientetik bereizturik daudenak, 1994ko uztailaren 26an eman zitzaizkion erabilera publikoari.

III. eta IV. tarteak, 1995eko urriaren 25ean eta 1996ko urtarrilaren 5ean, hurrenez hurren, behin-behinean hartu zirenak eta jadanik erabileran jarriak daude eta trafikoko irekiak.

II.4. LAGUNTZA TEKNIKOA.

1) Nafarroako Gobernuak 1991ko ekainaren 15ean harturiko erabakiaren bidez, kontseilariari baimena eman zitzaion laguntza kenikoko kontratuak izenpetzeko, "obren kalitatea kontrolatzeko" eta "obrak kontrolatu eta zaintzeko".

2) 561/91 eta 562/91 Foru Aginduen bidez, Kontseilariak aurretiko jarduketak onetsi zituen eta agindu zuen esleipen-faseari ekin zekiola, lehiaketa bidez.

3) Abuztuaren 24ko 831/91 eta 832/91 Foru Aginduen bidez, I. eta II. tarteak Elsamex-i eta Eurocontrol-i esleitu zitzaizkion, 24,5 eta 81,85 milioitan, hurrenez hurren.

4) Kontratuek ez dute aldaketarik izan eta 1993ko uztailaren 21ean hartu ziren behin-behinean.

5) III. eta IV. tarteetarako, Nafarroako Gobernuak 1993ko martxoaren 15ean harturiko erabakiak baimena eman zuen "topografiako" eta obren "kalitatearen kontroleko" laguntza teknikoko kontratuak izenpetzeko.

6) Aurretiko jarduketak eta lehiaketa bidezko esleipen-fasearen hasiera martxoaren 22ko 185/93 eta 186/93 Foru Aginduen bidez onetsi ziren.

7) Ekainaren 29ko 637/93 eta uztailaren 1eko 669/93 Foru Aginduen bidez, topografia Prointec-i esleitu zitzaion, 76,5 milioitan, eta kalitatearen kontrola Payma-ri, 24,37 milioitan.

8) Lehenengo kontratuak aldaketa bat izan zuen (ekainaren 26ko 1991/95 Foru Agindua), 10,5 milioikoa, eta bigarren kontratuak bi aldaketa izan zituen (otsailaren 10eko 716/95 Foru Agin-

dua eta otsailaren 10eko 717/95 Foru Agindua), 18,2 milioikoa.

9) Behin-behineko hartzeko aktak ez dira espedienteen agertzen, txostena egin zenean.

II.5. BURUTZEN ARI DIREN TARTEAK, V., VI. ETA VII.a.

1) Altsasuko lotunea (V. tartea).

Proiektua 1990eko ekainaren 28ko Foru Aginduz esleitu zitzaion, 17,99 milioitan, Prointec-i.

Otsailaren 3ko 36/92 Foru Aginduaren bidez, proiektua teknikoki onetsi zen, ukituriko ondasun eta eskubideak desjabetzeari ekin zitzaion eta bi agiriak jende aurrean jarri ziren.

Obra Agroman-i esleitu zitzaion, irailaren 18ko 2614/95 Foru Aginduaren bidez, lehiaketaren bitartez, 2.423,9 milioi pezetatan.

2) Altsasu-Arabako muga (VI. tartea).

Abuztuaren 24ko 2274/95 Foru Aginduak, 1993ko proiektua abiapuntutzat harturik, proiektu berritua teknikoki onetsi zuen, ukituriko ondasun eta eskubideak desjabetzeari ekin zion eta bi agiriak jende aurrean jarri zituen.

Otsailaren 28ko 630/96 Foru Aginduak jende aurrean jartzeko epea ebatzi zuen eta proiektu hori behin betikoz onetsi zuen. Agertzen denez, obrak burutzeko salneurria, 2.418,84 milioikoa da eta burutzeko epea, 24 hilabetekoa.

3) Etxegarate mendatea destolesta (VII. tartea).

Proiektu hau prestatzen ari da oraindik.

III. APLIKATZEKO DEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Txosten honek aipatzen dituen jarduketeki aplikakiek araubide juridikoa funtsean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legeak (aurrerantzean, KFL) osatzen du. Baldintza administratibo partikularren orriek eta izenpeturiko kontratuen beren xedapenek. Indarra hartu eta geroko kontratuei dagokienez, laguntza tekniko kontratuak arautzen dituen apirilaren 25eko 161/1991 Foru Dekretua ere da aplikatzekoa. Foru Dekretu horrek indarra hartu baino lehen apirilaren 4ko 1005/74 Errege Dekretua zegoen indarrean.

Halaber, Nafarroan KFLren edukia garatzen duen kontratazioari buruzko erregelamendu orokorrik ez dagoenez, ordezko izaerarekin, Estatuko

Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra erabili behar dugu, azaroaren 25eko 3410/1975 Dekretuaren bidez onetsi zena eta Estatuko Kontratuei buruzko Legea garatzen duena.

Ingurugiro alorrari dagokionez, ingurugiro eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu Legegileak eta hori garatzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak dute indarra, baita Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak obra horiei buruz eginko ingurugiro eraginaren aitortpenek berek ere.

IV. HELBURUA, NONDIK NORAKOAK ETA MUGAK.

IV.1. HELBURUA.

Kontuen Ganbara honek, 1996 ekitaldirako fiskalizazio programarekin bat, fiskalizazio programa bat egin du Sakanako autobiar buruz.

Txosten hau prestatzean, helburu hauek lortu nahi dira:

- Sakanako autobiarren burutze-egoera aztertzea eta hartaz ikuspegi orokorra ematea, 1996ko apirilean zelaiko lana bukatu arte inbertsioa osatzen duten kontzeptu guztiengatik eginko ordainketak ezarritz.

- Indarra duen arauteria bete ote den aztertu eta berrikustea, bereziki Kontratuei buruzko Foru Legea, obrako I., II., III. eta IV. tarreak (berez, Sakanako autobia dena) bideratu eta burutzerakotan.

- Gastu-kontzeptuak behar bezala dokumentaturik dauden egiaztatzea.

IV.2. NONDIK NORAKOAK.

Desjabetzapenen gastuen kontzeptuak ez dira xehetasunez aztertu. Izan ere, desjabetzapenak, Herrilan Departamentuko Desjabetzapen Atalak kudeatzen dituenak, iparraldeko autobian, 1993ko ekainaren 25eko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen horretan, eginko lanaren barruan aztertu baitziren zehatz-mehatz. Haren kontrol eta jardunbideak egokiak izan ziren. Hori direla eta, hain garbi ez dauden alorrei eman zaie lehentasuna. Hortaz, kontzeptu horrengatik eginko gastua bildu egin dugu bakarrik, azterketa zehatzik egin gabe.

Kontu-ikuskatzailetza garatzean, proiektuen, obren, obra osagarrien, birrezarpenen, laguntza teknikoaren eta segurtasunaren espedienteak aztertu ditugu, kontu-ikuskatzailetza jardunbideak

eta iritzi bat izateko beharrezkotzat jo ditugun adina egiaztapen erabiliz.

Iritzi hau aipaturiko kontzeptuen kasuan kasuko epigrafean agertzen da eta "ondorioak eta gomendioak" deritzon V. epigrafean dago laburturik.

IV.3. MUGAK.

Gure lanean muga hauek aurkitu ditugu:

a) 1988az geroztik aztertu behar izan diren ekitaldien ezberdinak, baita egotziriko gastuen izaera ekonomikoaren ezberdinak ere, ez digute posible egiten ziur egotea eginiko gastu guztiak bildu ditugula. Hala ere, uste dugu, aztertuak ez beste kontabilitate-lerro batzuetan bilduriko gastuak badaude, adieraziriko gastu guztia hutsaltzeko moduko garrantzirik ez dute.

b) Muga teknikoek eragozten digute iritzirik izatea proiektuen kalitateaz, salneurriez eta egini-

ko aldaketen egokiaz, ez ditugu langile teknikorik, gai horretan espezializaturik dagoenik.

Zelaiko lana 1996ko martxo-apiriletan egin zen.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eskerrak ematen dizkiogu emaniko laguntzagatik, lana egitea erraztu digu eta.

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondoren, gure lanaren ondorio eta gomendioak, aurreko epigrafean aipaturiko xedeeekin bat.

V.I. OBRAREN KOSTUA (VI. ATALA).

Sakanako autobiko lau tarteetarako gastu kontzeptuengatik ordainduriko kostu guztiak hau egiten du:

Milioika pezeta	Baimendu. aurekontua	Esleituriko aurekontua	Gutxitze-aren %	Aldaketak	Esleituarekiko aldatuaren %	Egiaztatua	Esleituaren gehikun. %	Esleitu + ald. gehikun. %
Proiektua	65,4	61	(3,8)	3,9	6,4	65,3	2,9	0,5
Obra	9.370	7.773,9	(17)	1.599	20,15	10.367,6	33,3	10,6
Obra osagarria	508,9	409,4	(19,5)	19,4	4,7	484,8	18,4	0,22
Ukituriko zerbitzuak	-	-	-	-	-	59,3	-	-
Laguntza teknikoa	250	207,3	(17,1)	28,7	13,8	241,1	16,2	2
Desjabetzapenak	-	-	-	-	-	1.311,2	-	-
Segurtasuna	-	-	-	-	-	474,7	-	-
Guztira						13.004		

Laukian ikusten ahal izan dugunez, gastu guztiak 13.004 milioi pezeta egiten du. Horietarik 10.367,6 obra kontzeptuari dagozkio. Horren gehikutza ehuneko 33,3koa da esleituaren salneurriarekiko edo ehuneko 10,6koa esleituaren salneurria plus 1.599 milioi pezeta egiten duten aldaketa eta obraren unitate berriekiko.

Nabarmenezkoa da, halaber, segurtasun kontzeptuko 474,7 milioi pezeta, iparraldeko autobia gertu baizegoen.

Herrilan Departamentuak, Ganbara honek Iparraldeko Autobiari buruzko txostenean eginiko gomendioari lotuz, obra honetarako kontabilitate-erregistro berezia eduki du. Horrela, obrek eraginiko gastuen kontrola eta argitasuna hobetu egin da.

Zehaztekoa da obra ez dagoela guztiz bukatu-rik. Hori dela eta, 1996ko apirilaz geroztik, alegia, txostena eten zenez geroztik, bestelako gasturik ager daiteke. Hala ere, uste dugu gastu horiek ez

dutela gastu guztia hutsaltzeko moduko garrantzirik

Hurrengo epigrafeetan ondorioak eta gomendioak iruzkinduko ditugu autobiko gastu kontzeptuez.

V.2. PROIEKTUAK (VII. ATALA).

Proiektuak zuzeneko kontratazioen bidez, publikitatearekin, esleitu ziren, lizitatzailengandik harturiko proposamenak baloratzeko txosten teknikoekin bat.

Lau tarteak eta obra osagarriak eraikitzeko proiektuei dagokienez, ondorio hauek aipa daitezke:

- Normalean Administrazioak ez du justifikatzen kontraturiko proiektuak burutzeko adina baliabide ez daudela.

- Proiektuen jarraipen egokirik ez da egiten, haien kalitatea zaintzeko, behar den ikuskapena-

ren bidez, eta proiektuetan esleipen-hartzaileari egotz dakizkiokeen akats, atzerapen edo ustekabekoak daudenean, ez dira behar diren kalteordainak eskatzen.

Aurreko ondorioekin bat, gomendio hauek egiten ditugu:

Espedienteetan, 1005/74 Dekretuko 4. artikuluan agertzen den eginbeharra behar bezala betezea, proiektuak egiteko sektore pribatura jo beharra justifikatzen delarik.

Proiektuak aurreikusiriko datan burutzeari behar den jaramona egitea, ziorik bada hasierako epea zabalduko delarik edo, ziorik ez bada, esleipen-hartzailea zehatuko delarik izaniko atzerapengatik, indarra duen legeriarekin bat.

Departamentuan eginkizun horiek esleiturik dauzkaten organoek proiektuak zaindu eta kontrolatu beharra areagotzea, eta, behar diren baliabideak izan ezean, beste batzuek. Ikuskapen horrek kalitatea bermatu beharko du eta proiektuen akats eta ustekabekoek ondoren obrak burutzeko epean eragina izatea saihestu, ahal den ber.

V.3. OBRAK (VIII. ATALA).

Obra nagusiari buruzko atal honetan eginiko lanaren arabera, ondorio eta gomendio hauek aipa daitezke:

V.3.1. Esleipenei buruz.

- Lehiaketa izatea esleitzeko ohiko modua. Baldintza administratibo eta partikularren orriaren kontratistak hautatzeko irizpideak aiptzen dira, baina ez da adierazten zer garrantzi erlatibo ematen zaion irizpide bakoitzari.

Baldintza administratibo eta partikularren orrietan hautatzeko irizpideak aldeztu aurretik baloratzen ez direnez, enpresek ez dute erreferentzia baliagarri eskaintzak baloratu behar diren puntuak buruz.

Baremoak "a posteriori" ezartzen direnez, lizitatuzaileen eskaintzak ezagutu eta gero, haien objektibotasuna muga daiteke.

- I. eta II. tarteetako baldintza administratibo eta partikularren orrietan "enpresarioek alderdian duten interesaren irizpidea" agertzen da, nekez KFLko 40. artikuluan aipatzen denaren antzekotzat jo daitekeena. Orrietan ez da deus ezartzen, gainera, irizpide hori ebaluatzeko moduz. Hori, bestaldetik, gainera objektibagaitza da. Egitez, txosten teknikoek ez dute baloratzen.

III. eta IV. tarteetan haren ordeztu "enpresa denborazko ezaugarrietara eta obren tokira egokitzea" jartzen da.

- I. tarteetan, Herrilan Kontseilariak egin zuen esleipena (1990eko abenduaren 31n), txosten teknikoak aurkezturiko proposamenei buruz egindako balorazioaren aurka, eta aldaketa hori esleipen-hartzailearen hautapenean behar bezala justifikatu gabe.

Bitxia da adieraz dadila esleipena txosten teknikoetan oinarritu dela. Horiek, baina, azkenean esleipen-hartzaile izan zen enpresa azkenetariko jarri zuten, txosten tekniko horrek lehen izateko proposatu zuenarekiko alde nabarmenarekin.

- III. eta IV. tarteetan, Herrilan Kontseilariak Bide Zerbitzuko Zuzendariak proposaturiko lehiazkideari esleitu zion (1993ko otsailaren 22an). Proposamen horrek ez du adierazten zergatik esleitu zen horrela eta ez du erantzen lizitatuzaileek lorturiko puntuaziorik.

Alegia, aurreko lerroaldeetan deskribaturiko jarduketetatik ondorioztatu dezakegu lau tarteetako kontratistak hautatzeko prozedurek nahibezalatasun handia erakusten dutela Administrazioaren aldetik kontratu horien esleipenean. Kasu batzuetan larriagotu da esleipena txosten teknikoaren aurka edo haiek gabe egin delako.

V.3.2. Aldaketei dagokienez.

- Udalen eskabideek eta proiektuaren zehaztugabeak aldaketa batzuk eragin dituzte, beti behar bezala bideratzen ez direnak. Normalean aldaketa horiekin batera ez doa findantzaren birdoitzea, KFLko 16. artikulua eskatu bezala.

- Bereziki esanguratsua da I. tarteetan zolua latzetik malgura aldatzea. Kontratistak alegatu zuen, aldaketa horrekin, posibleago izan dela eraikitze epeak betetzea. Aipatzekoa da epea izan zela esleitzeko zio nagusietarikoa.

Gainera, aldaketa horretan ez ziren errespetatu proiektuan ezarritako salneurriak, esleipenean eta orrietan aurreikusitako bezala. Aurrezkoa 67,3 milioitik, orri horietan aipaturiko salneurrien arabera, 20,4 milioira murriztu zen, kontratistak ezarri eta Administrazioak onarturiko salneurri berriekin. Ez da adierazten zergatik kendu zen salneurriak oinarritzko proiektura egokitu beharra.

V.3.3. Kontratuaren betetzeari dagokienez.

Azkeneko ziurtapenek, 10,367,6 milioi egiten dutenek, ehuneko 33,3ko desbiderapena dakarte, hasierako esleipenarekiko. Desbiderapen hori ehuneko 10,6ra gutxitzen da hasierako esleipena-

ri aldaketen 1.599 milioiak gaineratzen badizkiogu.

Bestaldetik, azkeneko ziurtapenetan 96,6 milioi sartu dira, aplikatzekoa zen BEZ tasaren aldaketaren ondorioz, eta 301 milioi, salneurriak aldatzeagatik.

Departamentuak, gainera, I., III. eta IV. tertee-tako orriek posible egiten zutenaren arabera, hornidura berezi bat erabili du, 402,5 milioi egiten duena.

Hornidura berezi horiek, legeriaren arabera, bakarrik obra unitate batzuetan erabili behar dira, zenbaki zehatza proiektuan nekez ezar dakiekeen horietan, hain zuzen ere.

Burutzeko epeei dagokienez, I. eta II. tertee-tan, esleipena 1990eko abenduan egin zen eta 1993ko ekainaren 25ean hartu ziren behin-behinean.

III. eta IV. terteeak 1993ko otsailean esleitu ziren eta 1995eko urriaren 25ean eta 1996ko urtarrilaren 5ean hartu, hurrenez hurren. Lau terteeak erabileran jarriak daude eta trafikoari irekiak.

Aurreko lerroaldeekin bat, hona hemen gure gomendioak:

Administrazioak baldintza administratibo eta partikularren orrietan esleipenetako balioko duten hautatze-irizpideen garrantzia ezartzea eta, beti ere, aplikatzekoa den balorazio baremoa kontratazio mahaiak kontratisten proposamenak ireki aitzin onestea.

Esleipen orotan irizpide bakoitzean eta kontratista bakoitzak lorturiko balorazioa behar bezala betetzea, esleipen-hartzailearen hautapena behar bezala justifikatzeko moduan.

Aldaketa alorreko legeak betetzea, obren eritimo normalari eragin gabe, baina behar den arintasunez bideratu eta onesteko. Horrela, obren kostuak modu egokian kontrolatuko lirateke, haien beharra behar bezala justifikatuko litzateke eta, legeriak eskatzen duen kasuetan, fidantzen zenbatekoa birdoituko litzateke (KFLko 16. artikulua).

Hornidura berezia bakarrik kasu berezietan erabiltzea, indarra duen legeria aurreikusirikoarekin bat.

V.4. OBRA OSAGARRIA ETA UKITURIKO ZERBITZUAK BIRREZARTZEA (IX. ATALA).

Obra osagarriak obra nagusiko akats berak ditu, bereziki baldintza administratibo eta partikularren orriak baloratu gabe ezartzerakoan eta zuzeneko esleipena hautatze irizpideak adierazi

gabe eta lehiakideek eginiko balorazioak alderatzen dituen agiririk aurkeztu gabe egiterakoan.

Halaber, lege ezarriko kasuetan, aldaketei eta fidantzei birdoitzeari dagokienez. Aurreko ataleko gomendioak dira aplikatzekoak.

Ukituriko zerbitzuak birrezartzeari dagokionez, normalean baldintza administratibo eta partikularren orriek eta obren aurretiko bideragarritasun eta zuinketa aktak egiaztatzen dute ukituriko zerbitzuak birrezartzea esleituriko proiektuan daudela, kontratista nagusiak burutzeko.

Ondoren, lan hauek, nahitaez, bereiztu egin behar dira haien ardura duten enpresek (Compañía Telefónica, Fensak eta abarrek) buru ditzaten. Bereizketa horiek, gainera, hasierako proiektuan esleiturikoaren birdoitze osorik ez dute eragiten.

Gure gomendioa da horri uko egitea eta obren hasierako proiektuan esleipen-hartzailea ez bestek egin beharreko zerbitzuen birrezarpenak bereiztea, gainera, ukituriko zerbitzuzak aurretik birrezarritik obren bideragarritasuna bermatuko delarik.

V.5. LAGUNTZA TEKNIKOA (X. ATALA).

Alor honetan eginiko lanarekin bat, gure ondorioa da laguntza teknikoko kontratuek orain arte obra nagusiaren eta osagarriaren esleipenetan aurkituriko akats berak dituztela, baita fidantzen birdoitzerik eza ere, lege eskatzen ahal den kasuetan. Hori dela eta obrei eta obra osagarriari buruzko atalean emaniko gomendioak dira aplikatzekoak, hautatze irizpideei eta aplikatzekoa den baremoari, lizitatzailleek eskuraturiko puntuazioen azalpenari eta, lege ezarriko kasuetan, fidantzen birdoitzeari dagokienez.

Bereziki, atal honetan, espedientean lizitatzailleek aurkezturiko agiriak ez direla agertzen ikusten dugu. Horrek eragozten digu a posteriori esleitze irizpideak baloratzea.

Gure gomendioa da espedientean lizitatzailleek aurkezturiko agiriak agertzea, inoiz esleipenerako orrietan ezarriko irizpideak behar bezala baloratu direla egiaztatuta ahal izateko.

Laguntza teknikoari dagokionez, azaldu nahi dugu zuzendaritza teknikoaren eta obren kalitatearen kontrolaren eginkizunak gero eta gehiago pribatizatzen ari direla. Horrek gutxitu lezake administrazioak obren burutzearen gainean izan beharko lukeen kontrol-maila eta, epe luzeagoan, gero eta gehiago, haren desteknifikazioa eragin lezake.

Ganbara honek aztertua du gai hori, administrazio kontratazioari buruzko aholkularitza txostenean, 1994ko 61 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitaratu zen horretan.

V.6. SEGURTASUNA (XII. ATALA).

Sakanako autobiako segurtasuna Nafarroako Gobernuak 1991ko uztailaren 4an harturiko Erabakiarekin hasi zen. Horrek zabaldu egin zuen Iparraldeko autobiatik autobia hartara zerbitzu mota hori ituntzeko baimena, bi obrak oso gertu daude eta.

Bi espediente daude. Bata, Prosehi enpresarekin, 186,1 milioiko gastua duena. Bestea, Guadiamar-Vanguardia de Seguridad-ekin, 288,6 milioiko gastua duena.

Lehenengo espedienteari dagokionez, esatekoa da:

- 1991ko urriaren 22an Prosehi enpresari eginitako zuzeneko esleipena enpresa hori bere zerbitzuak apirilean ematen hasi baino hilabete batzuk berantago izan zen.

- Alderdi batzuetan orriak gaizki prestatuak daudenez, zerbitzuak behar bezala ez emateagatik zehapenak ezartzeko aukera gutxi daude.

- Azkeneko kitapenak aurrekontu onetsiak eta haren aldaketek baino ehuneko 24,6 gehiago egiten du.

Aurreko iruzkinekin bat:

Gure gomendioa da kontratuei buruzko arauteria errespetatzea, aurreko lerroaldean aipaturiko

egoerak - zerbitzuak legea behar bezala bete gabe ematea, kasu - saihesteko; orriak behar bezala prestatzea, kontratu bakoitzaren kasuan kasuko ezaugarrietara egokitzeko eta kontratuen aldaketak esleipen-hartzaileari ezarritako diru baldintzetara egokitzeko eskatuz onartzea, aurrekontuaren eta zerbitzuen azkeneko kitapenaren artean alde handiak egotea saihesteko.

Vanguardia de Seguridad delakoaren bigarren espedientea zuzenean esleitu zen, Iparraldeko autobiatiko beste segurtasun kontratu batzuekin batera eskaintzak eskatu eta gero. Kontratua 1991ko abenduaren 1ean izenpetu zen eta 1992ko irailaren 30ean bukatu.

Gure azterketan ez dugu salbuespen nabarmenik aurkitu eta espedientea indarra duen legeriarekin bat dator.

VI. KOSTUEN LABURPEN OROKORRA.

Ondoren lauki-laburpen bat aurkeztuko dugu, non obrari egozteko gastuen kontzeptuak biltzen baitira, 1995eko abenduaren 31 arteko ordainketak jasota.

Kontzeptuak, ahal den ber, obraren jardunbide normalari jarraikiz aurkeztuko ditugu. Alegia:

- Proiektuak.
- Obra.
- Obra osagarria.
- Birrezarpenak.
- Laguntza teknikoa eta obra zuzendaritza.
- Desjabetzapenak.
- Segurtasuna.

	Proiektuak	Obra	Obra osagarriak	Ukituriko zerbitzuak	Laguntza teknikoa	Desjabetzapena	Segurtasuna	Orokorra, guztira
I. tarteak	10.720.000	2.099.197.278		13.328.351				2.123.245.629
II. tarteak	11.275.000	2.264.392.278		15.792.019				2.291.459.297
I. eta II. tarteak (batera)	9.820.317		484.762.493		25.220.596 86.915.695	601.576.016		1.208.295.117
III. tarteak	10.595.000	3.371.838.028		12.849.129				3.395.282.157
IV. tarteak	10.595.000	2.632.225.500		17.340.420				2.660.160.920
III. eta IV. tarteak (batera)	12.289.975				87.250.397 41466.086	543.486.941		684.493.399
Tarte zehatzik ez						166.221.792	474.689.626	640.911.418
Guztira	65.295.292	10.367.653.084	484.762.493	59.309.919	240.852.774	1.311.284.749	474.689.626	13.003.847.937

Herrilan Departamentuak, Biltzar honek Iparraldeko Autobiari buruzko Txostenean eginitako gomendioari lotuz, obra honetarako, kontabilitateko erregistro berezia eduki du. Horren ondorioa da kontrola handiagoa dela eta obrek eraginiko gastuak argiago direla.

Zehaztu beharrekoa da, 1996ko apirilaz geroztik, beste gastu batzuk sor daitezkeela, txostena bukatu zen egunean, III. eta IV. tarteetako obrak azkeneko ziurtapenik ez baitago eta II. tarteetako salneurriak alda baitaitezke.

Gainera, beste gastu batzuk sor daitezke. Izan ere, obra bukatzeke dago. Hala ere, uste dugu horiek kostu guztia hutsaltzeko moduko garrantzirik ez dutela izanen.

Hurrengo epigrafeetan kontzeptu bakoitza joanen gara iruzkinduz, lanaren ondorioak azalduko ditugularik eta egokitzen jotzen ditugun gomendio-

ak aztertuko ditugularik.

VII. PROIEKTUAK.

Ondoren, 1988ko azaroaren 12a arte autobiako lau tarteetan proiektuetan, obra osagarriaren proiektuetan, proiektuen aldaketetan eta ordainduriko ziurtapenetan izaniko esleipena azalduko dugu.

	Esleipena	Beherakada %	Epea	Aldaketak	Ziurtapena	Esleipen-hartzailea
I. tarte	9.420.000	5,56	5 hilabete	1.300.000	10.720.000	J. R. Ranz
II. tarte	9.975.000	0	5 hilabete	1.300.000	11.275.000	Iberinsa
III. tarte	9.295.000	6,82	5 hilabete	1.300.000	10.595.000	CIMA
IV. tarte	9.295.000	6,82	5 hilabete	1.300.000	10.595.000	Ingenieros CIMA
Obra osagarriak (I. eta II. tarteak)	9.500.000		105 egun		9.820.317	C. Intec
Obra osagarriak (III. eta IV. tarteak)	13.563.648		5 hilabete	(1.273.673)	12.289.975	Inarsa
Guztira	61.048.648			3.926.327	65.295.292	

Irurtzun-Altsasu autobiako lau tarteetan proiektuetan eta haien aldaketetan eginiko azterketatik abiatuz, ondorio hauek aterata ditzaizkete:

1. Azterturiko azterketetatik bakar batek ere ez du biltzen 1005/74 Dekretuko 4. artikuluan aipatzen den txostena, justifikatzen delarik Herrilan Departamentuak kontratatzen diren proiektuak egiteko giza eta gauzazko baliabideen askiezia edo horiek gehitzeko egokitasun edo komenientziarik eza.

Gaur egun indarra duen legeriaren arabera (161/91 Foru Dekretuaren arabera), txostena derrigorrezkoa da, kontratu mota horiek prestatu ziren: "Organo administratiboei laguntzeko tresna gisa, horiek horrela bere jarduketa gaitasuna osa baitezakete, eskura dauden ohiko baliabideak aski ez badira, bai behar koiunturalak betetzeko, bai ekonomia edo eraginkortasun zioengatik sektore pribatuari esleitzea hobe den zerbitzu zenbait egiteko, unitate administratiboak modu desegokian gehitu beharrik gabe".

2. Kontratuaren burutzeko epea, lehenengo bi tarteetarako, 1989ko maiatzaren 13an eta azkeneko bietarako urte bereko maiatzaren 17an bukatu da. Kontratuaren luzatzeko txosten-proposamena 1989ko martxoan egin zen, baina kontratazio organoak ez zuen aldaketa onartu, I tarteetan, abuztua arte eta, beste hiru tarteetan, urria arte.

Alegia, kontratuaren bukatu eta 3 eta 5 hilabete beranduago, hurrenez hurren.

3. III. eta IV. tarteetako obra osagarriaren proiektuak biderapen aldrebesa izan zuen, txosteneko II. epigrafean esan dugun bezala. Puntu hauetan labur dezakegu:

a) Proiektua hartzeko atzerapen nabarmena dago, luzapenik bideratu eta baimendu gabe.

b) Administrazioarekin desadostasun handiak daude, proiektuaren kalitateari dagokionez, kontratuaren deuseztatu ez bazen ere.

c) Espedientean ez da agertzen proiektua hartzeko akta.

Proiektuei buruzko epigrafean eginiko iruzkinekin bat, ondoren, gomendio hauek aurkeztuko ditugu.

Espedienteetan, 1005/74 Dekretuko 4. artikuluan agertzen den eginbeharra behar bezala betetzea, proiektuak egiteko sektore pribatura jo beharra justifikatzen delarik.

Proiektuak aurreikusiriko datan burutzeari behar den jaramona egitea, ziorik bada hasierako epea zabalduko delarik edo, ziorik ez bada, esleipen-hartzailea zehatuko delarik izaniko atzerapengatik, indarra duen legeriarekin bat.

Departamentuan eginkizun horiek esleituz dazkaten organoek proiektuak zaindu eta kontro-

latu beharra areagotzea, eta, behar diren baliabideak izan ezea, beste batzuek. Ikuskapen horrek kalitatea bermatu beharko du eta proiektuen akats eta ustekabekoek ondoren obrak burutzeko epean eragina izatea saihestu, ahal den ber.

VIII. OBRA.

Autobia zatiturik dagoen I, II, III eta IV tarteetako obra espedienteak azterturik, ondoren interes-

garrizat jotzen ditugun alderdiak nabarmenduko ditugu. Azterketan bereiztuko dugu:

- Aurrekontuko jarduketak eta esleipena.
- Obraren aldaketak
- Kontratuaren betetze-maila.

VIII.1. JARDUKETA PRESTATZAILEAK ETA ESLEIPENA.

Tarteak	Data	Obraren esleipena				
		Esleipen-hartzailea	Argitarapena, D.O.C.E.	Epea, hilabetetan	Zenbatekoa (milioi pta.tan)	Esleipen modua
I	31.12.90	UTE Irurtzun	Ez	19	1.578,9	Lehiaketa
II	31.12.90	Dragados y Construcc	Bai	20	1.795,5	Lehiaketa
III	22.02.93	UTE Arbizu	Bai	22	2.446,3	Lehiaketa
IV	22.02.93	Agroman	Bai	20	1.953,2	Lehiaketa
Guztira					7.773,9	

Autobiako lau tarteak lehiaketa bidez esleitu ziren, argudiatzen zelarik behin betiko aurrekontua alde aurretik ezartzea ez dela posible eta baldintza administratibo eta partikularren orrietan lehiakideek proposatuak ez beste konponbide teknikoak aurkezteko aukera aurreikusten dela. Orri horiei buruz, nabarmentzekoa da:

- Esleitze irizpideak ezarri egiten dituzte, baina zenbatu gabe.

- I. eta II. tarteetan, orrietan "enpresarioek eskualdean duten interesa" izeneko irizpidea, baina, lehiakideek aurkeztu beharreko agirien zerrendan ez da zehazten nola frogatzen ahal den merezimendu hori.

- III. eta IV. tarteetan, haren ordez, "enpresa denbora eta tokira egokitu beharra" agertzen da, hori ere justifikagaitza delarik.

Aldez aurreko bideragaitasun eta zuinketa aktetan esaten da ukituriko zerbitzuak eraikuntzaren proiektuan aipatzen direla, kontratista esleipen-hartzaileak buru ditzan, baina, egia esan, Fensak eta Telefónicak burutu behar dituzte obra horiek. Horrek, nola ez, ondorengo aldaketak eragiten ditu, obra horiek kontratu nagusitik bereizten direlarik.

I. tarteetan, esleipen jardunbidean, lizitatzailleak aurkezturiko proposamenak baloratzen dituen txosten teknikoak prestatu zen. Obren Atalaren txosten-proposamen horretan, Bide Zerbitzuko zuzendariak oniritzirik, orrietan ezarritako irizpide guztiak baloratzen dira, "enpresa interesa" izene-

koa ezik. Balorazio horrek azkenetariko jarri zuen azkenean esleipen-hartzailea izan zen enpresa, Irurtzun enpresen aldi baterako bategitea, lehen esleipen-hartzaile izateko proposatzen zenarekiko alde nabarmenarekin.

Hala ere, horren ondoren, Herrilan Kontseilariak Irurtzun enpresen aldi baterako bategiteari esleitu zion, justifikatu gabe zergatik aukeratu zuen kontratista hori eta adierazi gabe zergatik ez ziren kontutan hartu beste esleipen-hartzaile bat proposatzen zuten irizpide teknikoak.

II. tarteetan, esleipena aurkezturiko proposamenak baloratzeko txosten teknikoarekin bat Dragados y Construcciones, S.A.ri egin zitzaion, "enpresak alderdian duten interesa" irizpidea kontutan hartu gabe.

I. eta II. tarteetan, Nafarroako Gobernuak zolu mota latzetik malgura aldatzeko eskubideari eutsi zion. Kasu horretan proiektuan agertzen diren salneurri unitarioak ziren aplikatzekoak.

III. eta IV. tarteetan, hurrenez hurren Arbizu enpresen aldi baterako bategiteari eta Agroman-ekin zitzaien esleipena Bide Zerbitzuko zuzendariak izenpeturiko txosten-proposamenaren arabera izan zen. Ez zen azaldu orrietan ezarritako irizpideen ponderazioa ez eta zergatik egin ziren esleipen horiek zehazki. Hori dela eta ez da posible hautatze-irizpideak ongi aplikatu direla ondoren egiaztatzea.

Bi tarteetan, kontratuak atzerapen nabarmenarekin izenpetu ziren, orrietan ezarririko 30 eguneko epearen aurka.

VIII.2. ALDAKETAK.

Tarte guztietan, ondoren, kontratu aldaketa dexente izan ziren. Ondoren erasten den laukian agertzen dira:

Tartea	Expediente kopurua	Zenbatekoa, milioitan
I	7	177,8
II	5	357,8
III	7	574,8
IV	3	488,6
Guztira	22	1.599

VIII.2.1. I. tarteko aldaketak.

Obran zazpi aldaketa egin ziren, obra nagusiarren enpresa esleipen-hartzaileari esleitu zitzaizkionak, 177,8 milioi pezetatan, alegia, hasierako esleipenaren ehuneko 11,2.

1) Urtesarien aldaketak. Eragin ekonomikorik gabe. Espedientean ez da beste lan egitaraurik agertzen, ez eta Administrazioaren onarpenik ere.

2) Hiriberriko adarra (22,4 milioi).

3) Treneko pasabidea, Satrustegiko lotuea (31,6 milioi).

4) Hiriberriko gaineko pasabidea (40,7 milioi).

5) Udalen eskaeren ondoriozko obra osagarriak, 17 jarduketa (121,6 milioi).

6) Lerro telefonikoen aldaketak, hasierako proiektutik Compañía Telefónica egin behar dituen obrak bereizturik (horrek, gastua 18 milioi pezetan merketzea dakar).

7) Zolua latzetik malgura aldatzea (egitez, 20,4 milioi merketzea, baina, egiatan, ikusiko dugun bezala, 46,8 milioiko gastu gehitzea dakar). Aldaketa hori kontratistak eskaturik egin zen, alegatu baitzuen zolu malguarekin errazago izanzen zela eraikitzeko epeak betetzea eta zolu malgurako 410,2 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu zuen, esleituak ez beste salneurri unitario batzuk aplikatzearen ondorio izan zirenak.

Kontratistaren argudio horrek bere eskaintzaren aurka jotzen du, non eskainiriko epea (esleipenerako zio garrantzitsua izan zena) 19 hilabetea baitzen, bai zorlu latzerako, bai malgurako.

Gainera, kontratistak, bere eskaeran, kontsiderazio tekniko batzuk aurkeztu ditu aldaketa hori justifikatzeko, Herrilan Departamentuko Proiektu eta Obra Atalburuak ezetsi zituenak.

Kontratazio organoak onetsiriko proiektuan, zolu malguaren salneurria 363,3 milioitan ezarri zen eta zolu latzarena 430,7 milioitan (alegia, aldaketak 67,3 milioi pezetako aurrezkia egiten zuen).

Txosten tekniko horrek dio, gainera, proposaturiko zolu malgua esleituriko hormigoizkoa baino merkeagoa bada ere, horrek ez duela esan nahi zolu horren salneurri unitarioek abantaila aunitz dakartzatenik. Izan ere, zolu malgua latza baino ehuneko 26 merkeagoa dela egia bada ere, esleituriko proposamena bakarrik ehuneko 10 merketzen da.

Labur bildurik, orain arte, Herrilan teknikariak enpresaren proposamenaren aurkako txostena eman zuten.

Egun batzuk pasata, Bide Zerbitzuko zuzendariak txosten-proposamena izenpetu zuen, Proiektu Atalburuak ordura arte esana zuenaren kontrakoa, argudiatu zuelarik, bestelako kontsiderazioen artean, enpresa esleipen-hartzaileak ez duela esperientziarik zolu latzean. Hori ez dator bat enpresa hori obraren esleipen-hartzailea izatearekin, zolu latzean.

Azkeneko txosten horretan ezarri zen proiektuan agertzen diren salneurriak aplikatu behar direla, orriek eta esleipenerako foru aginduak ezarri bezala.

Herrilan Kontseilariak, azaroaren 11n emaniko 1137/91 Foru Aginduaren bidez, zolua latzetik malgura aldatzea onetsi zuen, espreski adierazi zuelarik aplikatzekoak ziren salneurriak esleipenerako balio izan zuen proiektuan agertzen zirenak izan zirela. Horrek, ikusi genuen bezala, 67,3 milioiko aurrezkia ekarriko zuen.

Foru Agindu hori onetsi eta hilabete eta lau egun geroago, Proiektu eta Obra Atalburuak izenpeturiko txostenean, Bide Zerbitzuko zuzendariak eta kontuhartzaileak oniritzirik, esan zen aurreko foru agindua aldatu egin behar zela, salneurriak, esleipenerako balio izan duen proiektuan zeudenen orde, esleipen-hartzaileak aurkezturiko aukerako proiektuan zeudenak izan zitezten.

Otsailaren 12ko 38/92 Foru Aginduaren bidez, aurreko agindua aldatu egin zen eta salneurri berriek hartu zuten indarra. Ez zen adierazi zergatik kendu zen oinarritzko proiektuko salneurrien menpe egon beharra.

Hori horrela, aldea 20,4 milioikoa da bakarrik. Onetsiriko aldaketaren zuzenketa honek beste 46,8 milioi ekarri dizkio esleipen-hartzaileari.

VIII.2.2. II. tarteko aldaketak.

Obran bost aldaketa izan ziren, obra nagusiaren enpresa esleipen-hartzaileari esleitu zitzaizkionak, 357,8 milioi pezetatan, hasierako esleipenaren ehuneko 19,9 egiten dutenak.

1) 1991ko urtesariaren gutxitzea (eragin ekonomikorik gabe). Urtesariaren doitze hori Estatuko Kontratazioen Erregelamenduko 152. artikulura egokitu gabe egin zen, lan programa aldaturik, txosten-proposamenean urtesariaren aldaketa eta, zuzenean, burutzeko epea justifikatzen dituen proposamenik aipatu gabe.

Espedientean ez da zuzenketa egiaztatzeko aktarik agertzen. Hori dela eta ezin adierazi esleipen-hartzailearen aldetik eragozpenik egon zen, birdoitze hori egin beharra azaltzeko moduan.

2) 1. proiektu berrituko obrak burutzea, 65,9 milioi pezeta.

3) Uharte-Arakil lotuneko abarra eraikitzea, 34,3 milioi egiten duena.

Kontratazio organoak ez du onartu aldaketa hau.

4) 2. proiektu berrituko obrak burutzea, 264,4 milioi gehitzea dakarrena, zoluaren aldaketa barne.

Aldaketa horrek, bere kostuagatik, fidantza birdoitzea dakar, baina espedientean ez da horrelakorik agertzen.

5) Ukituriko telefono-lerroak, gastua 6,8 milioitan gutxitzea dakartenak, proiektutik Compañía Telefónica eta horretako abonatuak burutu beharreko zerbitzu ukituen birrezarpena bereiztean.

VIII.2.3. III. tarteko aldaketak.

Obran zazpi aldaketa egin ziren, obra nagusiaren enpresa esleipen-hartzaileari esleitu zitzaizkionak, 574,8 milioi pezetatan, hasierako esleipenaren ehuneko 23,4 egiten dutenak:

1) Esleipenari buruzko Foru Aginduak aukera ematen du zoluari eta egiturei buruzko konponbide tekniko esleituak aldatzeko. Kasu horretan, proiektuan dauden salneurri unitarioak erabiliz, 2.446,3 milioi, zifra oso esleitua, lortu arte. Horrela, esleipen-hartzaileak beste aurrekontu bat aurkeztu zuen, egiturak eta zoluak aldatuz, baina, gainera, dirudienez, Herrilan Departamentua ados zegoela, egituren aldaketa bat aurkeztu zuen,

61,8 milioi pezetako gastu gehikuntza ekarri zuena.

2) Lur mugimenduak areagotzearen ondoriozko aldaketa, 309,3 milioi egiten duena. Haren funtsa da errealitatea ez datorrela bat proiektuari erantsiriko txosten geoteknikoarekin.

Aldaketa horrek fidantza birdoitzea zekarren, zenbatekoagatik, KFLko 16. artikularekin bat. Ez da agertzen birdoitze hori egin zela.

3) Lubetak zimendatzeko aldaketa, 208,6 milioi egiten duena. Txosten juridikoak dio, aurreko aldaketekin batera, ehuneko 23,8ko gehikuntza dakarrela eta, berez, kontratua suntsiarazteko zioa da. Aukera hau ez da erabiltzen, fidantza birdoitzen bada ere, baina bakarrik aldaketa honi dagokion zenbatekorako.

4) Egiturazko habeak aldatu eta finkatzea. Bi aldaketa, 0,2 milioi pezetako aurrekia dakartenak. Ez dira bideratzen aldaketa moduan eta obra zuzendaritzak bere legezko eskumenak erabilita onartu zituen.

5) Egituren proiektu aldatua (Lakuntzako sasi-tunela eta beste).

Aurreko biak bezala, ez da aldaketa moduan bideratzen eta obraren zuzendaritzak onartu zuen. 13 salneurri kontraesankor sartu zituen eta aurrekontua milioi bat pezetatan merketzea ekarri zuen. Hala ere, aldaketaren zenbateko hori garbia da, proiektuarekiko 73,5 milioiko gehikuntzaren eta proiektuarekiko 74,5 milioiko gutxitzearen artean.

Aldaketa horiek lehenengo aldaketan aldatu ziren egiturak ukitzen dituzte.

Kontratu-aldaketa kasu baten aurrean gaude. Alde batetik, kontratan aipatzen diren obrak kendu egiten dira (zubi baten orde, sasi tunel bat) eta beste obra unitate batzuk sartu, kontratan aipatzen ez direnak (13 salneurri kontraesankor sartzeak frogatzen duen bezala). Horregatik, 56.1 artikuluko 2. lerroaldearen arabera, aldatzeko espedientea KFLko 16. artikuluan ezarri bezala.

6) Iberdrolako afekzioak bereizteko aldaketa. Argindar lerroetako obra espedientetik kendurik. Kontratastari esleitu zitzaion eta argindar lerroen jabeak burutu behar du. Aurrekontuko kenketak 8,4 milioi egiten du eta Iberdrolari eginiko ordainketek, 12,8 milioi pezeta.

VIII.2.4. IV. tarteko aldaketak.

Kasu honetan, III. tartean bezala, kontratua izenpetu aitzin izan ziren eta esleipena egin zenean ongi zehazturik ez zeuden obren ezaugarri

batzuk ukitzen dituzten aldaketa teknikoekin topatzen gara.

Aukera hori baldintza administratibo eta partikularren orrietan agertzen zen, baldin eta aldaketa horiek esleituriko salneurri osoa ukitzen ez bazuten.

Hiru aldaketa egin ziren, obra nagusiaren enpresa esleipen-hartzaileari esleitu zitzaizkionak, 488,6 milioitan, hasierako esleipenaren ehuneko 25 egiten dutenak.

1) Itxaso goi tentsioko lerroaren aldaketa

Argindar dorre bat eraistea da, esleituriko proiektuan agertzen ez dena eta, hortaz, lana

dorrearen konpainia jabeari esleitu zitzaion, 17,3 pezetatan.

2) Lubetak zimendatzeko aldaketa Altsasuko lotunearen aldaketa (azpiko pasabidea izan beharrean, gainera izatera pasa zena) eta 291,2 milioi pezeta egiten duena.

3) Obra osagarriak burutzea.

197,4 milioi pezeta egiten du eta 28 jarduketa biltzen ditu, alegazioen eta obrek ukituriko udalekin izenpeturiko itunen ondorioz. Obra nagusiaren kontratista esleipen-hartzaileari esleitu zitzaizkion.

VIII.3. KONTRATUA BURUTZEA.

	Hasierako esleipena	Aldaketak	Esleitua plus aldaketak	Ziurtapenak	Desbider., %, has. esleitu.	Desbider.,%, esleitu + ald.
I. Tarteak	1.578,9	177,8	1.756,7	2.099,2	32,9	19,5
II. Tarteak	1.795,5	357,8	2.153,3	2.264,4	26,1	5,1
III. Tarteak	2.446,3	574,8	3.021,1	3.371,8	37,8	11,6
IV. Tarteak	1.953,2	488,6	2.441,8	2.632,2	34,7	7,7
Guztira	7.773,9	1.599	9372,9	10.367,6	33,3	10,6

Aurreko laukian ikusi bezala, guztira ziurtatuaren eta hasieran esleituaren arteko desbiderapena ehuneko 33,3koa da, batez-beste, lau tarteetan.

Hala ere, aldaketak sartzen baditugu, aldea ehuneko 10,6 egin arte gutxitu da.

Bestaldetik, aplikatzekoa den BEZ tasa aldatzeak ere eragina izan du azkeneko ziurtapenetan, esleipenaren eta kontratuaren bukaera eta

salneurrien aldaketen arteko legeria aldaketagatik. Horrek ehuneko 6,3 egin arte gutxituko luke desbiderapen ehuneko.

Gainera, orrietan aurreikusi bezala, I., III. eta IV. tarteetan hornidura berezia erabili da, legeak kasu berezietarako gordetzen badu ere. Bakarrik proiektuan zehazki kontatzea oso zaila den obra unitateetarako gordetzen da.

Ziurtapenak

Tarteak	Hornidura berezia	BEZ aldea	Salneurrien Aldaketa	Gainerakoa	Guztira
I	157,8	33,2	14,3	1.893,9	2.099,2
II	-	41,2	-	2.223,2	2.264,4
III	199	11,5	142,1	3.019,2	3.371,8
IV	45,7	10,7	144,6	2.431,2	2.632,2
Guztira	402,5	96,6	301	9.567,5	10.367,6

Ñabartu behar da, azkenik, orain arte ez dagoela III. eta IV. tarteetako azkeneko ziurtapenik eta II. tarteetako salneurriak alda daitezkeela, obra hori ez baitago guztiz bukatuta.

Obra burutzeko epeei dagokionez, obra osagarrien kasuan urtebete baino gehiago atzeratzen

dira, baina ez da zehapen espedienterik ireki atzeratzeagatik, Departamentuko kontuhartzailearen txostenean agertzen den bezala.

Obra nagusiari dagokionez, I. eta II. tarteetan ez da agertzen zuinketa egiaztatzeko aktarik. Hori dela eta ezin jakin obraren burutzea atzeratu den.

Obra atal honetako **ondorio** gisa, esan deza-kegu:

1. Lehiaketa dela esleipen modu normala. Baldintza administratibo eta partikularren orrietan kontratistak hautatzeko irizpideak aipatzen dira, baina ez da esaten zer garrantzi erlatibo ematen zaion haietariko bakoitzari.

Esleitze irizpideak alde aurretik baloraturik ez daudenez eta baldintza administratibo eta partikularren orrietan haien garrantzia ezarririk ez dagoenez, enpresa lehiakideek ez dute erreferentzia baliagarririk haien eskaintzak ebaluatzeko abiapuntuei buruz (hori autobiako tarte guztiez esan daiteke).

I. eta II. tarteetako baldintza administratibo eta partikularren orrietan "alderdiaren enpresendako interesa" irizpidea agertzen da. Hori nekez jo daiteke KFLko 40. artikuluan aipatzen direnen antzekotzat. Ez da deus esaten orrietan merezimendu hori ebaluatzeko moduz. Horrez gain, objektibatzeko zaila da.

I. tartearen kasuan, Herrilan Kontseilariak proposamen aurkeztuei buruzko txosten teknikoan eginiko balorazioaren aurka esleitu zuen, aukera hori behar bezala justifikatu gabe.

III. eta I.V tarteetan kasuan, Herrilan Kontseilariak Bide Zerbitzuko zuzendariak proposaturiko lehiakideari esleitu zion, baina proposamen horrek ez du adierazten zergatik egin zen horrela esleipena eta ez da eranstean lizitatzailleek lorturiko puntuazioa.

Nabarmendu behar da irizpideak enpresa lizitatzailleak ezagutu eta gero ezartzeak berarekin dakarren nahibezalakotasuna. Hori areagotu egiten da esleipenak baloraziorako irizpide teknikoan aurka edo horrelakorik ezean egiten direnean.

2. Ikusten dugu proiektuak behar bezala berraztertzen ez direnean, aurreko epigrafean esan bezala, eta udalek eskaerak aurkezten dituztenean hasierako proiektua aldatu egiten da, baina aldaketa horiek ez dira beti modu egokian bideratzen.

Normalean, aldaketa horiekin batera ez dago esleipen-hartzaileak ordainduriko fidantzen derri-gorrezko doitzea, KFLko 113. artikulua hala xedatzen badu ere.

Bereziki garrantzitsua da zolua latzetik malgu-
ra aldatzea I. tarteetan kasu horretarako baldintza administratibo eta partikularren orriek ezartzen zituzten salneurriak aplikatu gabe. Salneurriak ez aplikatzean, aurreikusiriko aurrezkia 46,8 milioi pezetatan gutxitu da, hori justifikatu gabe.

Aurreko lerroaldeekin bat, hona hemen gure gomendioak:

- *Administrazioak, baldintza administratibo eta partikularren orrietan esleipenerako balio behar duten hautatze irizpideen garrantzia maila ezartzea, Estatuko Kontratazioei buruzko Erregelamenduko 82. artikuluan ezarri bezala eta, beti ere, aplikatzekoa den balorazio baremoa kontratazio mahaiak kontratisten proposamenak ireki baino lehen onestea.*

- *Esleipen orotan irizpide bakoitzagatik eta kontratista bakoitzak lorturiko balorazioa behar bezala betetzea, esleipen-hartzailea zergatik hatutatu den modu egokian justifikatzeko.*

- *Aldaketen alorreko legezketasuna betetzea, obren erritmo mormala ukitu gabe behar den arintasunez bideratu eta onartzeko. Horrela posible izanen da obren kostuen kontrola egokia izatea, haien beharra behar bezala justifikatuko delarik eta, legeriak eskatzen duen kasuetan (KFLko 16. artikulua) fidantzen zenbatekoa birdoituko delarik.*

- *Hornidura berezia modu hertsian erabiltzea, benetan bereziak diren kasuetan, indarra duen legeriarekin bat.*

IX. OBRA OSAGARRIA ETA UKITURIKO ZERBITZUAK BIRREZARTZEA.

IX.I. OBRA OSAGARRIA (I. ETA II. TARTEAK).

IX.I.I. Jarduketa prestatzaileak eta esleipena.

Baldintza administratibo eta partikularren orriak Estatuko Kontratazioei buruzko Erregelamenduko 82. artikuluan ezarriko gutxieneko edukira egokitzen dira, salbu eta:

- Esleipen irizpideak ezartzea, aipatuak direnak, baina ez zenbatuak.

- Aldez aurreko bideragarritasun eta zuinketa aktak dioenez, ukituriko zerbitzuak birrezartzea proiektuan sarturik dago, kontratista esleipen-hartzaileak buru dezan. Ohitura hori lehenago salatu dugu eta Departamentuko legelariaren txostenean ere ageri da.

Kontratazio mahaiak 11 eskaintza hartu zituen eta kontratazio organoak eskaintzak ebaluatzeko txosten teknikoan proposaturiko enpresari esleitu zion. Txosten hori Proiektu eta Obra Atalburuak izenpetu zuen, Bide Zerbitzuko Zuzendariak oniritzirik, eta Mariezcurrena enpresari esleitu zitzaion.

Hala ere, zehaztu behar da:

Ez dago eskaintzak baloratzeko koadrorik, orrietan ezarriko irizpide bakoitza puntuatzen duenik, eta ez da adierazten haietariko bakoitzari

emaniko ponderazioa. Dena dela, esleipen-hartzailearen proposamena merkeena zen aurkeztuen artean.

Espedientean ez da zuinketa egiaztatzeko akta agertzen.

IX.I.2. Kontratua formalizatzea.

Kontratua epe barruan formalizatu zen, 39.1 milioi pezetatan, ehuneko 17,20ko beherakadarekin, eta 10 hilabeteko epearen barruan.

Beherakadak, hasiera batean ausarkeriazkoztat jo zenak, Herrilan Departamentuak azalpenak eskatzea merezi izan zuen. Departamentuak egoki iritzi zien azalpen horiei.

IX.I.3. Aldaketak.

Espedientean hiru aldaketa agertzen dira dokumentaturik:

- Sei bide aldatzea.

Bideak aldatu edo gehitzeak 67,9 milioi pezeta egiten du. Esleipenaren salneurriaren ehuneko 20 baino gutxiago denez, obra nagusiaren kontratistari esleitzen ahal zaizkio. Espedientean ez da agertzen fidantza birdoitu zenik.

- Autobus geltokien lekualdatzea

Azpiegiturezko obra osagarriak, markesinak paratzeko. 3,9 milioi pezeta egiten dute.

IX.I.4. Kontratua burutzea.

Espedientean zuinketa egiaztatzeko aktarik ez dagoenez, ezinezkoa da egiaztatzea obra burutze-epearen barruan egin zen, baina, dirudienez, ez da atzerapen garrantzitsurik izan.

Ondoren, obraren kostua zehazten da, milioika pezetatan:

	Zenbatekoa
Esleitua	391,1
1. aldaketa	67,9
2. aldaketa	3,9
Guztira	462,9

Ziurtapenek 464,3 milioi pezeta egiten dute, salneurrien aldaketa, 1,9 milioikoa, barne. Hori sartu gabe burutzeak pixka bat behera egin du.

Markesinak eraikitzeaz azpiegiturezko obraren bigarren aldaketaz gain, beste aldaketa bat mahaingaineratu zen, haiek eraikitzeak, espedientea eta esleipen bereiztua dauzkana.

Esleipena lehiaketa bidez egin zen, orain arte aipaturiko arazo guztiak izan zituelarik, hautatze-

irizpideen balioak ez baitziren azaldu eta balorazio horiek biltzen zituen laukirik ez baitzuen aurkeztu.

Esleipena 18,2 milioi pezetatan egin zen. Hala ere, badago 1,1 milioiko aldaketa, arkitekto laguntzaileari ordaintzeko.

Kopuru hauei 1,1 milioi pezeta gaineratu behar zaizkie, markesinak diseinatzeko ideia lehiaketaren ondorioz.

IX.2. UKITURIKO ZERBITZUAK BIRREZARTZEA.

Haiek berrezartzea 59,3 milioi pezeta kostatzen da, obretako gastuen koadroan ikus dezakegunez, eta obra nagusiko tarte bakoitzean VIII. epigrafean iruzkindu dira.

Ondorio gisa, berez, obra nagusiko akats berak ditu, bereziki baldintza administratibo eta partikularren orrietan hautatze-irizpide baloratugabeei eta, hautatze irizpideak adierazi gabe eta eginiko balorazioak alderatzen dituen agiririk erantsi gabe zuzeneko esleipenari dagokienez.

Halaber, aldaketei eta KFLko 113. artikulua eskatzen duen eta beharrezkoa den fidantza birdoitzeari dagokienez.

Zehazki, obra osagarriari buruzko epigrafe honetarako esan beharra dago baldintza administratibo eta partikularren orriek eta obretako bideragarritasun eta alde aurreko zuinketa akte diotenez, ukituriko zerbitzuak birrezartzea proiektuan sarturik daudela, kontratista nagusiak buru ditzan.

Ukituriko zerbitzuen birrezarpena gehienbat argindar eta telefono lerroetan eta bestetan egin behar diren aldaketei dagokie, normalean jabeek egin behar dituztenei eta, jabeek egin ditzaten, obra nagusitik bereiztean, obraren aldaketak eragiten dituztenei. Bereizkuntza horiek, gainera, ez dute eragiten hasierako proiektuan esleituriko zenbateko osoaren birdoitzei.

Gure gomendioa da ohitura horri uko egitea eta esleipen-hartzaile nagusia ez bestek burutu beharreko zerbitzu birrezarpen horiek proiektu nagusian bereiztea, ukituriko zerbitzu horiek alde aurretik birrezarritik obraren bideragarritasuna bermatuko delarik.

X. LAGUNTZA TEKNIKOA.

Ondoren aurkeztuko dugun koadroan, tarteka eta pezetatan, hasierako salneurria, esleituriko aurrekontua eta beherakada ehunekoak, aldaketak eta azkeneko ziurtapenak erakusten dira, aldaketa ehunekoak ere aurkezten direlarik.

	Hasierako aurrekontua, orriaren/a	Esleituriko aurrekontua	Beherakada %	Onetsiriko aldaketak	Ziurtapena	Esleitu. Aurrek. aldaketa % BEZ alda. gabe	Hasier. Aurrek. aldaketa % BEZ alda. gabe
I. eta II. tarteak							
Obren kontrola eta kalitatea. Elsamex	29.925.134	24.538.610	18,00	—	24.851.289 BEZ aldea 369.308	1,28	(16,95)
Obrak kontrolatu eta zaintzea. Eurocontrol.	99.246.768	81.855.726	17,52	—	85.468.812 BEZ aldea 1.446.884	4,42	(13,88)
III. eta IV. tarteak.							
Topografia. Prointec	87.465.140	76.544.774	12,48	10.528.133	86.978.117 BEZ aldea 272.280	13,64	(0,55)
Kalitatearen kontrola. Payma	33.395.897	24.378.878	27	1.923.874 16.296.480	41.308.353 BEZ aldea 157.733	69,45	23,70
Guztira	250.032.939	207.317.988	17,08	28.748.487	238.606.571 BEZ aldea 2.246.205	15,10	(4,56)

Oharra: lana bukatu eta gero III. eta IV. tarteetako azkeneko ziurtagiriak hartu ziren, gastua 0,2 eta 9,7 milioi pezetatan gehitu dutenak, hurrenez hurren.

X.1. I. ETA II. TARTEAK. ETXARREN-IRAÑETA-LAKUNTZA.

X.1.1. Kalitatearen kontrola

Herrilan Departamentuak, 1991ko maitzaren 31n, txosten bat burutu zuen, kontuhartzailak, Zerbitzuko zuzendariak eta Proiektu eta Obra Atalburuak izenpetua, Kontseilariari igortzeko, non, eskatzen baitzen lehenengo bi tarteetako obren kalitatearen kontroleko laguntza teknikoko lanak esleitzea, gehienez ere 29,9 milioi pezetatan.

Txosten horri dagokionez, zehaztu behar dugu ez dela behar bezala justifikatzen Departamentuaren baldiabideen askieza edo egoitasunik eza, ez eta zergatik komeni den hirugarrenekin kontratazea ere.

Kontratazio Mahaia osaturik, lau eskaintza hartu ziren, baina espedientean ez dira agertzen lau lizitatzailak aurkezturiko agiriak, ez eta esleipen-hartzailea izan zenaren proposamen ekonomikoa ere. Horrek eragotzi egiten du ondoren esleipen irizpideak baloratzea.

Esleipena, baldintza administratibo eta partikularren orrien arabera, irizpide batzuk (baliabidea, esperientzia, gaitasuna, aurrekontua) baloraturik egin behar da.

Esleipena, 1991ko abuztuaren 29an Elsamex-i egin zitzaion. Txosten batean, esaten da hura

dela diru aldetik komenigarriena zen eskaintza aurkeztu zuen enpresa, baina ez du justifikatzen nola baloratzen diren orrietan ezarriko irizpideak. Esleipena 24,5 milioi pezetatan egin zen.

Kontratuaren behin-behineko likidazioa, 1993ko uztailaren 15ekoa, 25,2 milioi pezetatan egin zen. Horrek ehuneko 3 gehitzea dakar. Hor-tik, gutxi gorabehera, ehuneko 1,5 BEZ tasa aldatzearen ondorioa da.

X.1.2. Obrak kontrolatu eta zaintzea.

Obrak kontrolatu eta zaintzeko laguntza teknikoko kontratazioaren proposamena kontuhartzailak, Zerbitzuko zuzendariak eta Proiektu eta Obra Atalburuak 1991ko maiatzaren 21ean izenpetu eta Kontseilariari igorri txosten batetik abiatu-rik egin zen. Horrek baldintza tekniko eta administratibo partikularren orria biltzen zuen eta 18 hilabeteko epea ezartzen. Gehieneko zenbatekoa 99,2 milioikoa zen.

Aurreko kasuan bezala, ez da behar bezala justifikatzen, Departamentuaren baldiabideen askieza edo egokitasunik eza, ez eta zergatik komeni den hirugarrenik kontratatzea ere.

Kontratazio Mahaia eraturik, zortzi eskaintza hartu ziren, baina espedientean ez dira agertzen zortzi lizitatzailak aurkezturiko agiriak, ez eta esleipen-hartzailea izan zenaren proposamen ekonomikoa ere. Horrek eragotzi egiten du, ondoren esleipen irizpideak baloratzea.

Esleipena, baldintza administratibo eta partikularren orrien arabera, irizpide batzuk (baliabideak, esperientzia, gaitasuna, aurrekontua) baloraturik egin behar da.

Esleipena, 1991ko abuztuaren 29an Eurocontrol-i egin zitzaion, eskaintzarik merkeena aurkeztu zuenari, baina ez du justifikatzen nola baloratu diren orrietan ezarritako irizpideak. Esleipena 81,8 milioi pezetatan egin zen.

Kontratuaren behin-behineko likidazioa, 1993ko ekainaren 16koa, 86,9 milioi pezetatan egin zen. Horrek ehuneko 6 gehitzea dakar. Horrik, gutxi gorabehera, ehuneko 1,8 BEZ tasa aldatzearen ondorioa da.

X.2. III. ETA IV. TARTEAK.

X.2.1. Kalitatearen kontrola.

Herrilan Departamentuak, 1993ko martxoaren 4an, txosten-proposamen bat egin zuen, kontuhartzaileak, Bide Zerbitzuko zuzendariak eta Proiektu eta Obra Atalburuak izenpetua eta Kontseilariari igorria. Horretan III. eta IV. tarteetako obren kalitatearen kontroleko laguntza teknikoko laguntzak esleitzea eskatu zen, gehienez ere 87,4 milioi pezetatan.

Txosten horri buruz, esan behar da ez dela behar bezala justifikatzen, Departamentuaren baliabideen askieza edo egokitasunik eza, ez eta zergatik komeni den hirugarrenik kontratatzea ere.

Kontratazio Mahaia eraturik, zortzi eskaintza hartu ziren, baina espedientean ez da agertzen zortzi lizitatzailleek aurkezturiko agiriak.

Esleipena, baldintza administratibo eta partikularren orrien arabera, irizpide batzuk (baliabidea, esperientzia, gaitasuna, aurrekontua) baloraturik egin behar da.

Esleipena Prointec-i egin zitzaion, txosten-proposamen baten bidez. Horretan orrietan ezarritako irizpideak argitu eta neurtu egiten dira. Esleipena 76,5 milioi pezetatan egin zen.

Kontratuaren burutzeak 10,5 milioiko aldaketa izan zuen. Hori horrela, kontratu osoak 87,1 milioi pezeta egiten du eta ziurtapenek, 87,2 milioi pezeta. Aldea BEZa aldatzeagatik eta gastua pixka bat gutxitzeagatik gertatu da.

X.2.2. Obrak kontrolatu eta zaintzea.

III. eta IV. tarteetako obrak kontrolatu eta zaintzeko laguntza teknikoko kontratazioaren proposamena kontuhartzaileak, Zerbitzuko zuzendariak eta Proiektu eta Obra Atalburuak 1993ko martxoaren 4an izenpetu eta Kontseilariari igorri txosten

batetik abiatu egin zen. Horrek baldintza tekniko eta administratibo-partikularren orria biltzen zuen. Gehieneko zenbatekoa 33,3 milioikoa zen.

Orriek lehiaketa ezartzen dute esleipen modu gisa, baita esleipen irizpideak ere (beherakada ehunekoak, eskaintza, gaitasun operatiboa, ekipoa, enpresaren esperientzia), baina ez ditu zenbaitzen, ez eta neurtzen ere.

Esleipena Paymosa enpresari egin zitzaion, 24,3 milioi pezetatan, baina txosten-proposamean ez da azaltzen nola baloratu diren orrietan ezarritako irizpideak.

Ondoren beste bi aldaketa egin ziren. Bata, 1,9 milioitan, eta bestea, 16,3 milioitan, fidantza birdoitza behartzen dutenak. Birdoitze hori ez da agertzen, baina burutzeko epea 4 hilabetez luzatu zuen.

Obrak, aldaketak sarturik, 42,6 milioi pezeta jotzen du guztira eta ziurtapenek, 41,7 milioi.

Ondorio gisa, laguntza teknikoko kontratu hauek orain arte obra nagusiaren eta obra osagarrien esleipenetan topatu diren akats berak dituzte, eta, aldaketak gertatzen direnean, fidantza ez da birdoitzen.

Laguntza teknikoko esleipenak, ikusi genuen bezala, orrietan ezarritako irizpideak nola baloratu eta neurtzen diren justifikatu gabe.

Horregatik, obrei eta obra osagarriari buruzko atalean eginiko gomendio berak dira aplikatzekoak, hautatze irizpideei eta baremoari, lizitatzailleek lorturiko puntuen azalpenari eta aldaketetako fidantzen birdoitzeari dagokienez, KFLko 16. artikularekin bat.

XI. DESJABETZAPENAK.

Txosteneko IV. atalean lanaren nondik norakoei buruz esan bezala, desjabetzapenaren gastu kontzeptua. Horren kudeaketa Desjabetzapen Atalari dagokio eta Iparraldeko Autobiari buruzko txostean zehatz-mehatz aztertu zen. Haren kontrolak egokitzat jo ziren. Hori dela eta, okerrago kontrolatu diren beste gastu kontzeptu batzuei lehentasuna ematearren, ez dugu xehetasunezko probarik egin.

Txosteneko VI. epigrafeko koadro orokorrean bildurik desjabetzapen gastuek 1.311 milioi pezeta egiten dute.

XII. SEGURTASUNA.

Nafarroako Gobernuak 1989ko azaroaren 23an harturiko erabakiaren bidez, baimena eman

zitzaion Herrilan Kontseilariari Iparraldeko Autobiako obrak behar bezala burutzeko gastuak onartzeko.

Sakanako autobiako segurtasuna, mehatxuak jasanak zituen Iparraldeko autobiako obretatik hurbil egoteagatik, Nafarroako Gobernuak 1991ko uztailearen 4an harturiko Erabakiarekin hasi zen. Horretan zabaldu egin zen Sakanako autobiako obretara segurtasun kontratuak izenpetzeko baimena "Iparraldeko autobiako antzeko segurtasun zioengatik".

Herrilan Departamentuak, 1991ko urriaren 2ko erabakiaren bidez baitesi zen erabaki haren bidez, Prosehi enpresari esleitu zion Sakanako autobiako segurtasuna, 186,1 milioitan.

Ondoren, 1991ko abenduaren 1ean, segurtasuna Guadiamar-Vanguardia de Seguridad enpresarekin kontratatu zen, 288,6 milioitan.

Gero, 1992ko irailean, enpresa horrekiko kontratua iraungi egin zen, kontratuen zioak izan ziren segurtasun arazoak desagertzean.

XII.1. PROSEHI ESPEDIENTEA.

Prosehi segurtasun enpresaren kontratazio espedientea aztertutik, ondorio hauek ateratzen ditugu:

- Baldintza administratibo partikularren orriak gaizki prestaturik daude. Besteak beste, atzerape-nagatik bakarrik ezartzen dituzte zahapenak. Horrek ez du zentzurik, egunez egun egiten baita prestazio hori.

Dirudienez, laguntza kontratuen "ereduzko orriak" erabiltzeagatik prestatzen dira gaizki orriak. Baina, aztertzen ari garen kasuan Administrazioari kendu egiten zaio kontraturiko segurtasuna gaizki prestatzeagatik diruz zehatzeko eskumena.

- Esleipena zuzenean egin zitzaion proposamen ekonomikoa eskatu zitzaion enpresa bakkarrari.

- Esleipena Herrilan Zuzendari Nagusiak 1991ko abuztuaren 7an eginiko txosten-proposamenetik abiatutik egin zen. Hala ere, lehenengo fakturazioa aurtengo urte honetako apiril, maiatz eta ekaineko 9 egun bilduz egin zen. Hori dela eta, enpresa Administrazioak kontratatzeke egini-ko edozein jarduketa baino lehen ari zen bere zerbitzuak ematen. Izan ere, kontratua 1991ko abenduaren 2an izenpetu zen eta urriaren 31 arte izan zuten indarra.

Bitxia da izenpeturiko kontratuak 50 milioi pezetako gastua onartzea, ordurako hiru halako bazen ere, eta 1991ko urriaren 23an, gastua 100 milioitan gehitzen zuen aldaketa bat onartzea, ordurako gastuak bazeuden ere. Egun hartantxe jakinarazi zitzaion enpresari Nafarroako Gobernuak salatzen zuela.

Azkeneko likidazioak ehuneko 24,6ko gehikuntza egiten du onarturiko aurrekontuarekiko, aldaketa barne, guztira 186,1 milioi direlarik.

XII.2. GUADIARMAR-VANGUARDIA DE SEGURIDAD ESPEDIENTEA.

Kontratu hori zuzenean esleitu zen, bost eskaintza eta Iparraldeko autobiari dagozkion beste kontratu batzuk eskatu eta gero.

Kontratuak (hau barne) 1991ko abenduaren 1ean izenpetu ziren eta, zenbait luzapenen ondoren, 1992ko irailaren 30ean bukatu ziren.

Ikuspuntu juridikotik esan beharra dago, orokorrean, izenpeturiko espedientea kontratuen arloan indarra duen legeriara egokiturik dagoela eta ez dugula gure azterketan salbuespen nabarmenik aurkitu.

Iruñean, 1996ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERASKINAK.**1. ERASKINA. HERRILAN DEPARTAMEN-
TUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AUR-
KEZTURIKO ALEGAZIOAK.****1.- TEKNIKOAK ETA OROKORRAK.**

1.- Kontuen Ganbarak Irurtzun-Altsasu Auto-
biari buruz eginiko behin-behineko txosteneko
"Kontratuaren burutzea" izeneko VIII.3 epigrafean
koadro batekin eta horri buruzko lerroalde batekin,
non hau esaten baita: "Aurreko laukian ikusi beza-
la, guztira ziurtatuaren eta hasieran esleituaren
arteko desbiderapena ehuneko 33,3koa da,
batez-beste lau tarteetan".

Hurrengo bi lerroaldeetan zifra hori ñabartu
egiten da, dioelarik, aldaketak, BEZ tasaren alda-
keta eta salneurrien aldaketak sartuko balira, des-
biderapenaren protzentaia % 6,3ra gutxituko litzatekeela.

Alegazioak:

Lehenengo zifrak, ehuneko 33,3koak, ez du txostenean agertu behar, ez delako zuzena eta zentzurik ez duelako.

Kontratuak behartzen dituen elementuak, sal-
neurrien aldaketa, kasu, edo bertan aurreikusten
direnak, edo aldatzen ez dutenak, hornidura bere-
zia, kasu, edo Gobernuaren zerga politika dire-
nak, BEZaren aldaketa, kasu, kontratu-desbidera-
pentzat jotzea ez da zuzena.

Ez du zentzurik unitate ezberdinak alderatze-
ak, hala nola, hasierako esleipenaren aurrekon-
tua, obra zehatzei dagokiena, eta azkeneko ziur-
tapena, non, lehen aipaturiko elementuak
kontabilizatzeaz gain, hasierakoa ez beste proiektu
eta onespena, jende aurrean egoteko berezko

epea, berezko desjabetzapena, eta hasierako
esleipeneoak ez diren biderapen eta epea izan
dituzten obra berriak sartzen baitira.

Ganbararen arabera, "desbiderapen ehuneko 6,3ra" gutxituko litzatekeela ere ez da egia. Zifra hori ere ez da egokia.

Ez da egokia, hornidura berezia kontratuaren
aldaketatzat jotzea, eta KFLko 21. artikuluko 3.
lerroaldeak, hitzez hitz dio:

"Haren erabilpenak, eskudun zuzendariak
xedatuko duenak, ezarriko epea proportzioan
luzatzea ekarriko du, baina ez du ondorio bakarre-
rako ere, kontratuaren aldaketan izaera izanen".

Hortaz, Legearen arabera, hornidura bereziak,
ondorio bakarerrako ere kontratu aldaketa izaera-
rik izan ez badeza Kontuen Ganbararen behin-
behineko txosten baten ondorioetarako ere ezin
dezake izan.

Behin betiko txostenak zuzendu egin beharko
du kontu horretarako behin-behineko txostena eta
hornidura bereziari kontratu aldaketa izaera kendu
beharko dio. Bestela, Ganbarak ez luke Kontra-
tuei buruzko Foru Legea ezagutuko.

Hornidura bereziak ondorio bakarerrako ere
kontratu aldaketa izaerarik ez duenez, esan nahi
du kontratuaren parte dela eta haren zenbatekoa
baimendurik eta onarturik dagoela. Hau begi bis-
takoa da, 1209/90, 1210/90, 1191/92 eta 1192/92
Foru Aginduak eta autobiako lau tarteetako bal-
dintza administratibo eta partikularren lau orriak
ikusita.

Hortakoz, kontratu bakoitza burutzeko neurri
ekonomikoak taula honetan agertzen direnak dira

Tartea	I	II	III	IV	Guztira
Hasierako esleipena (A)	1.578.963.603	1.795.507.180	2.446.332.724	1.953.246.351	7.774.049.858,00
Aldaketak (B)	216.558.221	330.423.434	584.449.479	488.732.586	1.620.163.720,00
Aldak. % hasier. esleipenarekiko	13,72	18,40	23,89	25,02	20,84
Hornidura onartua	157.896.360	171.973.763	304.000.000	277.300.000	911.170.123,00
Hornidura berezia erabilia (C)	157.896.360	0	199.000.000	45.700.000	402.596.360,00
Hornid. % hasier. esleipenarekiko	10,0	0,0	8,1	2,3	5,2
Birbatua, guztira (A+B+C)	1.953.418.184	2.125.930.614	3.229.782.203	2.487.678.937	9.796.809.938,00
Likidazioaren gehitzea	107.926.447	96.561.664	-11.582.203	-10.778.937	182.126.971,00
Likid. gehitz. % hasier. esleipen.	6,8	5,4	-0,5	-0,6	2,3
Likidazioaren zenbatekoa (*)	2.061.344.631	2.222.492.278	3.218.200.000	2.476.900.000	9.978.936.909,00
Likid. zenb. (*) hasier. esleipen.	30,55	23,78	31,55	26,81	28,36
Bez aldea	23.600.000	41.900.000	11.500.000	10.700.000	87.700.000,00
Bez aldearen % hasier. esleipen.	1,49	2,33	0,47	0,55	1,13
Salneurrien aldaketa	14.252.674	41.200.000	140.100.000	144.600.000	340.152.674,00
Salneurrien aldak. % hasier. esleipen.	0,90	2,29	5,73	7,40	4,38

(*) hornidura berezi erabilia eta aldaketak barne.

3. Kontuen Ganbarak Sakanako autobiar buruz eginiko behin-behineko txosteneko "I. tarteko aldaketak" izeneko VIII.2.1. epigrafean, zolua latzetik malgura aldatu dela esatean, hitzez-hitzez lerroalde hauek ematen dira:

"Kontratatik, bere eskaeran, kontsiderazio tekniko batzuk aurkeztu ditu aldaketa hori justifikatzeko, Herrilan Departamentuko Proiektu eta Obra Atalburuak ezetsi zituenak.

Kontratazio organoak onetsiriko proiektuan, zolu malguaren salneurria 363,3 milioitan ezarri zen eta zolu latzarena 430,7 milioitan (alegia, aldaketak 67,3 milioi pezetako aurrezkia egiten zuten)."

Alegazioa:

Ez da egokia esatea zolu malguko oinarriko proiektuak esleipenerako balio izan zuela, obra esleipen-hartzaileak zolu latzeko konponbidea aurkeztu zion eskaintzari esleitu baitzitzaion, eta ez zolu malguko eskaintzari.

Kontratista horri zolu malguko konponbidea esleitu izan balitzaio, berak aurkezturiko aukerako salneurrietan esleitu zatekeen, orain aurkeztu zituen salneurrietan, hain zuzen ere.

Alegia, neurketa beretarako, oraingo kostu bera aterako zatekeen, alegia, 410.268.797 peze-ta.

Proiektu eta Obra Atalburuaren txostenean, Ganbarak aipatzen duen horretan, ohartarazten zen:

"Kontratataren zolu malguaren burutze materialaren aurrekontuak 410.268.797 pezeta egiten du. Esleituriko hormigoizko zoluak, ordea, 430.716.608 pezetako aurrekontua du. Hortakotz, zolu malguko proposamena merkeagoa da zolu latzeko esleipena baino.

Horregatik, hau nabarmenarazi behar da:

a) Aplikatzen diren salneurri unitarioak kontratatistak aukera gisa lizitazio eskaintzan aurkeztu zituen ataletan agertzen zirenak dira."

Iruzkina:

Esana dago kontratistari lizitazioan zolu malguko aukera esleitu izan balitzaio, salneurri horietan eginen zatekeela eta ez oinarriko proiektuko-etan.

Segitzen du esaten:

"Aukerako eskaintzako salneurrien ordez, oinarriko proiektukoak aplikatuko izan balira, gaurengungo proposameneko aurrekontua 363.375.629 pezetakoa izanen litzateke, aurkezturiko 410.268.797 pezetan ordez."

Iruzkina:

Ohar hau kontratataren eskaintza diru aldetik ez dela komenigarria adierazteko egin da. Zolu malguko lizitazioko eskaintza ere ez zen komeni, oraingo bera baitzen eta esleitu ez baitzen. Baina, bistan bada, onartuko balitz ondorio guztiekin onartu beharko litzateke.

Proiektu eta Obra Atalburuaren txostena aurre-ra doa:

“Aurkezturiko zolu malguko atala esleituriko hormigoizkoa baino merkeagoa bada ere, horrek ez du esan nahi atal horretako salneurri unitarioak sobera komenigarriak direnik. Izan ere, onarturik dago (ikus...) 131 atala (proposaturiko zolu malgua) 136 atala (esleituriko zolu latza) baino %26 merkeagoa dela.”

Kontuen Ganbararen behin-behineko txostenak hau dio, hitzez hitz:

“Herrilan Kontseilariak, azaroaren 11n emaniko 1137/91 Foru Aginduaren bidez, zolua latzetik malgura aldatzea onetsi zuen, espreski adierazi zuelarik aplikatzekoak ziren salneurriak esleipenerako balio izan zuen proiektuan agertzen zirenak izanen zirela. Horrek, ikusi genuen bezala, 67,3 milioiko aurrekia ekarriko zuen.”

Alegazioa:

Foru Aginduak, horretaz, hau dio:

“2. Zolu berriko materialen salneurriak esleipenaren oinarritako balio izan dutenak izan dira”.

Esaldi horrek ez du zentzurik, honengatik:

Esleipenaren oinarritako balio izan zuen proiektua zolu latzekoa zen. Horregatik, pentsatzekoa da Foru Agindua lizitazioaren oinarritako balio izan zuen proiektuaz, esleitu ez zenaz, ari zela. Baina, kasu horretan, esan bezala, kontratistak proposaturiko zolu malguko aukerari esleitu zitzaioken, hark orain aurkeztu duen berari.

Hortakotz, Foru Aginduan bi kontzeptu-akats daude.

Kontuen Ganbararen txostenak segitzen du hau esaten:

“Foru Agindu hori onetsi eta hilabete eta lau egun geroago, Proiektu eta Obra Atalburuak izenpeturiko txostenean, Bide Zerbitzuko zuzendariak eta kontuhartzaileak oniritzirik, esan zen aurreko foru agindua aldatu egin behar zela, salneurriak, esleipenerako balio izan duen proiektuan zeudenen orde, esleipen-hartzaileak aurkezturiko aukerako proiektuak zeudena izan zitezten.”

Alegazioa:

Txosten berrian, Kontseilariaren onespeneraren menpe jartzen zela lehen azalduko akatsak zuzentzea, besterik ez.

4.- Kontuen Ganbararen behin-behineko txosteneko “Proiektuak” eta “Kontratuaren burutzea” izeneko VII. eta VIII.3 epigrafeetan proiektuen birrazterketa aipatzen da eta, hitzez hitz, gomen dio hau ematen da: “Departamentuan eginkizun horiek esleiturik dauzkaten organoek proiektuak

zaindu eta kontrolatu beharra areagotzea, eta, behar diren baliabideak izan ezean, beste batzuek. Ikuskapen horrek kalitatea bermatu beharko du eta proiektuen akats eta ustekabekoei ondoren obrak burutzeko epean eragina izatea saihestu, ahal den ber.”

“Ikusten dugu proiektuak behar bezala berraztertzen ez direnean, aurreko epigrafean esan bezala, eta udalek eskaerak aurkezten dituztenean hasierako proiektua aldatu egiten da, baina aldaketa horiek ez dira beti modu egokian bideratzen”.

Alegazioa:

Udalen eta partikularren eskabideei eginiko kontzesioak, Administrazioek proiektua onartu eta gero onartu zirenak, ezin aurreikusi ziren haiek prestatzen ari zirenean.

Bestaldetik, beste toki batean esan bezala, alderdi hartan autobiako obraren aurka zegoen jarrera politiko eta sozial gogorrek ezinezkoa egin zuen zundaketak eta lurraldeko geoteknikoa eza-gutzeko laginak zehatz-mehatz burutzea.

Halaber, batzuetan, kontratazio organoak obra lizitazailerik esleipen-hartzaileak aurkezturiko aukerako proiektuei esleitu zion. Hori bateragarria zen esleipen moduarekiko, hots, lehiaketarekiko. Bistan denez, proiektu horien gainean ez zen posible aski zen kontrola burutzea.

Ezin onartuzkoa da “aldaketa horiek ez dira beti modu egokian bideratzen” baieztapen orokorra, zehaztu gabe zer biderapenez ari den, gehienbat, kontutan harturik ez gaudela jakitun biderapen garrantzitsurik ez dela burutu gabe gelditu.

II.- JURIDIKOAK.

Ikuspuntu juridiko soiletik txostenean afera eztabaidagarri hauek agertzen dira:

1.- VII. atalean (“Proiektuak” izenekoan, 3. C puntuan) esaten da espedientearen ez dela agertzen proiektua hartzeko akta (III. eta IV. tarteetako obra osagarrietakoaz ari da). Hori ez da egia eta txostenean berean II.2. atalean (“Proiektuak” izenekoan) esaten denarekiko kontraesankorra da. Horretan, modu zuzenean, adierazten da proiektua likidatu eta hartzeko akta 1994ko otsailaren 25ekoa dela. Egia da egun hartan likidazio akta egin zela kontratua hartzeko agiriarekin batera.

3.- “III. tarteetako aldaketak” izeneko VII.2.3 ataleko V. puntuan esaten da egituren proiektu aldatua (Lakuntzako sasi-tunelak eta beste) kontratu aldaketa bat dela eta kontratan aipaturiko obrak ken-

tzea eta beste obra unitate batzuk sartzea daka-rra. Hori dela eta, Kontratuei buruzko Foru Legeko 56.2 artikulua araber, aldaketa espediente bideratu beharko zatekeen. Hortaz esan behar da aldaketa espediente hori ez zela bideratu zer eta, kontratuko baldintza administratibo eta partikularren orriko VII.2 baldintzan, Estatuko obren kontratazioarako baldintza administratibo orokorren orriko 50. baldintzan babesten den horretan, ezarrikoaren araber, ez baita beharrezkoa. Baldintza horietan "kontratazio proposaturiko hobekuntzak" biltzen dira, alegia, proiektu aldaketa horiek, obra unitateak ordeztzea badakarte ere, komenigarriak direnak, beharrezkoak ez baina, eta kostua gehitzea ez dakartenak. Kasu horretan, obrako zuzendariak baimen dezake haien burutzea, baina ez da beharrezkoa kontratazio organoak onartzea eta hori da hain zuzen ere espediente gertatu zena. Beraz, ez zen aginduzkoa kontratualdaketa burutzea, behin-behineko txostenak esanak esan.

4.-Azkenik, iruzkindu behar da behin-behineko txosteneko V.5. eta X.1.1. ataletan ("laguntza tenikoa" eta kalitatearen kontrola izenekoetan, hurrenez hurren) esaten del espediente ez direla agertzen lizitatuak aurkezturiko agiriak eta horrek eragotzi egiten duela egiaztatzea esleitze-irizpideak behar bezala baloratu diren. Hortaz, esan behar da hori ez dela egin eskura dauden argibideak gutxitzeko asmoz, baizik eta, bakar-bakarrik Administrazioak lizitatuak aurkezturiko agiriak itzuli beharra betetzeko asmoz, haiek hala eskatuz gero, Kontratazioari buruzko Erregelamenduko 108. artikuluan agindu bezala.

Iruñean, 1996ko azaroaren 8a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

2. ERASKINA. KONTUEN GANBARAK HERRILAN DEPARTAMENTUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI EMATEN DIEN ERANTZUNA.

I. TEKNIKOAK ETA OROKORRAK.

1. alegazioa.

Txostenean, desbiderapenak aztertzen ditugunean, ez diegu kontratuzko izaerarik ematen, ekonomikoa baizik, hasieran esleituaren eta ziurtatuaren arteko alde gisa.

Halaber, txostenean esaten dugu hornidura bereziak ez duela aldaketa izaerarik. Hori dela eta horri buruzko alegazioak ez du funtsik.

Herrilan Departamentuak aurkezturiko burutze koadroan, alegazio horretan zifra batzuk biltzen dira, txostenean agertzen diren datuak pixka bat diferenteak direnak. Hori gertatu da:

- Herrilan Departamentuak obren bereizkuntzaren ondoriozko aldaketak eta esleituriko kostua gutxitzea dakarten aldaketak kontutan hartu ez dituelako (1355/92, 1137/91, 38/92, 1336/92, 2049/95 Foru Aginduak, etab.)

- Ziurtatuaren zutabe egin dugu exekuzioak, pentsatzekoa denez, BEZ diferentzia eta salneurrien aldaketak biltzen ditu, kontratazioaren ziurtapenen osagarriak baitira.

- II. tartean ez da agertzen salneurriak aldatu direla, beti ere kontabilizaturik agertzen ez direnak.

2. alegazioa.

2. alegazioa aintzakotzat hartu dugu. Hori dela eta, kendu egin dugu alegazioen testutik.

3. alegazioa.

Argitu beharra dago desadostasuna bi foru agindu daudelako gertatu dela.

- Lehengoak zolu malgurako proiektuko salneurriak hartzen ditu abiapuntuztat.

- Bigarrenak, kontratazioak zolu mota horretarako aurkezturiko salneurri berriak hartzen ditu abiapuntuztat.

Gure irudikoz, obraren esleipenari buruzko Foru Aginduak xedatu bezala, lehenak izan behar du irizpidea, esleipen agindu horretan eta pleguetan agertzen baita, eta ez esleipen-hartzailearen salneurrietarako proposamen berria.

4. alegazioa.

Esaten dugunez, hasierako proiektuko aldaketak ez dira beti behar bezala bideratzen, eta txosteneko testuan akatsak aipatzen ditugu hau bideratzean:

- Zolua latzetik malgura aldatzea. I. tartea.
- Urtesarien aldaketa I. tartean.
- Urtesaria gutxitzea, II. tartean.
- Lotune adarra eraikitzea, II. tartean
- Egituren proiektu aldatua, III. tartean

Bestaldetik, aldaketetan, orokorrean, Kontratuei buruzko Foru Legeko 16. artikuluan aipatzen diren aginduzko fidantza birdoitzeak ez dira burutzen.

II. JURIDIKOAK.

1. alegazioa.

Ez dago kontraesanik harrera aktarik ez dagoelako. Beti ere, txostenaren aurrekarietan ez da akta hori aipatzen eta halakorik eza nabarmentzen dute ondorengo ikuskapenak eta txosteneko testuak.

2. alegazioa.

Alegazio hau aintzakotzat hartu da. Hori dela eta alegazioen testutik kendu dugu.

3. eta 4. alegazioak.

Alegazio horiei dagokienez, Kontratuei buruzko Foru Legeko 56.1 artikuluko 2. lerroaldearen aipua zuzendurik, Ganbara honek baietsi egiten ditu behin-betiko baieztapenak.

Iruñean, 1996ko azaroaren 18a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

